

# FAMILIA GAUR EGUN

## AURKIBIDEA

### 1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

### 2. ATAZAK

- A. ataza: Nolakoa da gure familia?
- B. ataza: Familia lehen eta orain
- C. ataza: Eta zaharrek zer?

### 3. MATERIAL OSAGARRIA

- A. Hauek bai buruhausteak!
- B. Besterik nahi?

### 4. ERANSKINAK

- |   |  |
|---|--|
| I. 'Argazkiak ikusten' entzungaia         | IX. Lehen joko matematikoa. ETB. DB 410 (a)  |
| II. Munduko haurrak                       | X. Bigarren joko matematikoa. ETB. DB 410(b) |
| III. Haurraren desirak                    | XI. Hiru joko matematiko                     |
| IV. Familiak                              | XII. Jaiotako hurren sexua (A - B fitxak)    |
| V. Familia. Euskadi Irratia. DB 1669      | XIII. % 3,1 jaiotza gehiago 2.000. urtean    |
| VI. Testigantzak                          | XIV. Meri Torras eta Mikel Valverde          |
| VII. Zahar-etxea. Euskadi Irratia. DB 144 | XV. Nire arreba Aixa                         |
| VIII. Logika-jokoa                        | XVI. Tadese                                  |

| BIDEO-PASARTEAK |                |                |                               |
|-----------------|----------------|----------------|-------------------------------|
| <u>A ataza</u>  | <u>B ataza</u> | <u>C ataza</u> | <u>Material osagarria (A)</u> |
| 1.- 00.07.32    | 2.- 00.09.13   | 3.- 00.14.51   | 4.- 00.20.00<br>5.- 00.22.00  |

OHARRA: denbora horiek erreferentziakoak dira.

# 1. SARRERA

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Familia eta eskola dira haurrak sozializatzeko dituen ingurune nagusiak. Familia, gainera, gizartearen egituran oso erakunde garrantzitsua da. Bestalde, azken urteotan familiaren egitura, ezaugarriak... aldatuz joan dira eta, une honetan ezin esan familia-eredu bakarra dagoenik. Horrek guztiak interesa du hezkuntzaren ikuspegitik eta, hori dela eta, lehen hezkuntzako haurrei gizartea ikertzeko proposatu ohi zaizkien lanen artean bada, beti, familiari loturiko gairen bat edo beste.

Lan horiek egiteko, gehienetan, gurasoen laguntza behar izaten dute; besterik ez bada ere, familiari buruzko informazioa lortzeko.

Ikastunitate honetan gurasoen laguntza beharko duten hainbat jarduera hartu ditugu ikasgelako lanaren ardatz.

**A. atazan** gurasoek lagundu beharko diete haurrei familiaren argazki adierazgarri bat hautatzen, argazkia ikaskideei aurkezteko gidoia prestatzen eta familiaren zuhaitz genealogikoa egiten. Ataza honetan familiaren gaiari atxikitako oinarritzko lexikoa lantzeko hainbat aukera izango ditu ikasleak.

**B. atazan** familiaren eraketan ematen ari diren aldaketen inguruan jardungo dugu. Ataza honetan gurasoek hiru informazio-iturri ustiatuko dituzte: gaiari buruz dakitena, komunikabideetan argitara emandako testuak eta erakunde batek internet-en jarrita duen informazioa. Ataza honetan zera bilatuko dugu funtsean:

- Batetik, ikasleak formaltasun-maila ezberdineko testuak irakurtzen trebatzea.
- Bestetik, treba daitezela eskuratzen duten informazioa helburuen arabera modu selektiboan hautatzen eta antolatzen.
- Horrekin batera, aztertuko dugu nola lagundu geure haurrei lan horixe bera egiten.

**C. atazan** familiako zaharren egoeraz arituko gara. Nolako baliabideak eskaintzen ditu gizarteak zaharren beharrak asetzeko? Zein iritzi dugu? Bi galdera horiek izango dira ataza honetan proposatuko dugun lanaren ardatz nagusi. Hiruhilabete honetan haurrek gai hau jorratuko dute eskolako aldizkarian: haur bakoitzak artikulua bat idatzi behar du, eta aldizkaria gurasoen eta aiton-amonen artean banatuko da. Irakasleek helduontzat interesgarria izan daitekeen aldizkari bat egitera bultzatu nahi dituzte haurrak.

Ataza honetan, ondorengo baliabideak erabiliko ditugu:

- Batetik, ikasleek lan egin dezatela hainbat erakundek internet-en dituzten web-orriekin
- Bestetik, artikulua idatziak egiteko beste bi eredu ezagutzea. Unitate honetan, gai baten inguruko INFORMAZIO OBJEKTIBOA eta IRITZIAK jasoko dituzten artikulua egiteko ereduak landuko ditugu.
- Horrekin batera, azalpen argiak emateko eta besteen hitzak testuan ondo txertatzeko baliabideak ere landuko ditugu.

Bestalde, **material osagarrietan** langai gehiago paratu ditugu:

***Hauek dira buruhausteak!*** atazan familiaren gaiarekin lotutako hainbat jolas matematiko egingo ditugu hasieran. Bigarren eta hirugarren atalean familiaren tamainaren bilakaerarekin zerikusia duten datu estatistikoak, grafikoak eta testuak landuko ditugu. Haurrek maiz egin behar izaten dituzte grafikoak eta horien inguruko interpretazioak. Horretan laguntzeko trebakuntza eskuratzeko aukera eskaini nahi diegu gurasoei.

**Besterik nahi?** atazan, azkenik, adin honetako haurrei bereziki gustagarri gertatuko zaizkien bi liburu ezagutuko ditugu. Ipuin bat (Nire arreba Aixa) eta Unicefek argitara emandako testigantza-liburu bat (Ni bezalako haurrak). Ataza honetan hainbat jarduera egingo ditugu liburu hauek euskarri; jarduera horiek guztiak Hirugarren Munduko haurren adopzioaren gaian ardazturik egongo dira; uste dugu haurrentzat zein gurasoentzat asegarriak izango direla bertan proposatu ditugun eginkizunak.

Laburtuz, honakoak izan daitezke ikasgelako lana gidatzeko osagaiak:

- **GAIA BERA:** ataza guztiak gurasoei esanguratsu gerta dakiekeen gai baten inguruan daude ardaztuta. Horrek esan nahi du, "etxeko lanen" aitzakia bigarren mailan utzi, eta irakasleak baduela jokatzeko AOI metodologian oinarritzen diren beste material batzuekin bezalatsu.
- **ESTRATEGIAK:** atazetako bakoitzean ikasteko, testuak ulertzeko eta ekoizteko oinarritzko estrategia zehatzak aurkezten eta lantzen dira. Unitate bakoitzean estrategia ezberdinak landuko dira. Hori izan daiteke ikasgelako lana gidatuko duen euskarri nagusia.
- **HAURREI LAGUNTZEKO ORIENTABIDEAK:** ataza guztiek bilatzen dute gurasoek hausnartu eta eztabaida dezatela haurrei laguntzeko moduez. Hauxe izan daiteke guraso batzuen kezka nagusia. Horrelakoetan bada, osagai hori izango litzateke nagusi materiala egikaritzean.
- **EUSKARAZKO INFORMAZIO-ITURRI ETA PRODUKTU KULTURALAK:** guraso askori bereziki lagungarria izango zaio ezagutzea euskaraz zer argitaratzen den: liburuak, kontsulta-lanak, hiztegiak, internet-a... Kontuan hartu behar dugu, bestalde, euskaraz behar bezala moldatzen ez badira eta, esate baterako, herri txiki batean bizi badira edota oso erdaldunetan, nekez ikusi eta lortu ahal izango dituztela haurrei interesgarri eta lagungarri gerta dakizkiekeen hainbat eta hainbat produktu.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena



### A. ATAZA: NOLAKOA DA GURE FAMILIA?

- Familiaren zuhaitz genealogikoa egin
- Ahoz egindako azalpen bat ulertu
- Etxekoen argazki bat deskribatu
- Nork bere familiaren ezaugarriak zerrendatu

**MIN/ENTZ/IRAK**



### B. ATAZA: FAMILIA LEHEN ETA ORAIN

- Testu hainbatetatik informazioa eskuratzeko zailtasunak aurreikusi
- Familiak izan dituen aldaketen inguruko elkarrizketa bat entzun, eta informazio esanguratsuena erauzi
- Astekari batean argitara emandako hiru elkarrizketa labur irakurri, eta zerrendatu amatasunerako dauden oztopoak
- Internet-en dagoen FAMILIA UGARIEN GIDA irakurri, eta pasarte ilunak haurrei argitzeko adibideak eman

**IRAK/MINT/IDAZ**



### C. ATAZA: ETA ZAHARREKIN ZER?

- Hurrek izan ohi dituzten hainbat kezka aztertu
- Egin beharreko testuen ezaugarriak aztertu
- Artikulu bat egiteko informazioa internet-en eskuratu, eta haur baten lana osatu
- Beste bat egiteko iritziak bildu eta aztertu; haur baten lana zuzendu
- Horrelako artikuluak egiteko irizpideak zerrendatu

**IRAK/MINT/ENTZ/IDAZ**



**MATERIAL OSAGARRIA**

**A. HAUEK DIRA BURUHAUSTEAK!**

- Hainbat jolas matematikoren instrukzioak ulertu, eta egin
- Taula bat osatu, eta grafiko bat egin
- Hainbat iruzkin egia / gezurra diren erabaki
- Grafiko bati buruzko testua irakurri, eta hainbat datu ondorioztatu
- Grafikoaren azalpen laburra idatzi

**ENTZ/IRAK/MINTZ/IDAZ**



**MATERIAL OSAGARRIA**

**B. BESTERIK NAHI?**

- Testuak ozenki irakurri, zenbait gezur txertatuta
- Ipuin bat irakurri, eta Aixa protagonistaren aurkezpena egin, zenbait gezur txertatuta
- Ipuinean jorratzen den gaiaren gaineko xehetasunak bildu, eta horietaz hitz egin.
- "Ni bezalako haurrak" liburuko haur bati buruzko testuetan ezabatutako izenburuak zein diren igarri
- Alderatu ipuinaren protagonista eta "Ni bezalako haurrak" liburuan azaldutako bestearen kasuak. Antzekotasunak eta ezberdintasunak adierazi.

**IRAK/MIN/ENTZ/IDAZ**

### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### HELURU OROKORRAK

- Haurrei orientazioak ematea, familiaren gaiari atxikitako eskolako lanak egiteko.
- Erakundeek internet-en bidez familientzat eskaintzen dituzten zerbitzu-orriak ezagutu eta erabiltzea.

#### AZPIGAIK

- Ahaidetasuna, zuhaitz genealogikoa, familiaren ezaugarriak. (A) (MO-1)
- Munduko beste lurraldeetako familien ezaugarriak. (A) (MO-2)
- Familiaren ezaugarriak lehen eta orain. (B)
- Ama izateko zailtasunak eta familia ugarietzako laguntzak. (B)
- Zaharrentzako gizarte-zerbitzuak. (C)
- Familiaren tamainaren eta jaiotze-tasaren bilakaera. (MO-1)
- Atzerriko haurren adopzioa. (MO-2)

#### HIZTEGIA

- **Ahaidetasuna** : seme-alabak, gurasoak, koinatua, erraina, suhia....
- **Familiaren ezaugarriak**: ugaria, soila, kideak, mistoak, zabala...
- **Amatasuna**: edoskitzea, lan-uztea, haurtzaindegia, haurtzaina....
- **Gizarte-zerbitzuak**: zahar-etxea, zaharren egoitza, familia ugarietzako dirulaguntzak, ...
- **Adopzioa**: besoetako haurra, umezurtzen etxea, ezindua, elkartasuna, babesa...
- **Grafikoak**: ardatzak, eskalak, gorakada, behera egin, handitu, eutsi, ugaritu...

#### ELKARRERAGINA

- Esperientziak eta jokabideez hitz egin. (A) (B)
- Ikaskideek aurreikusitako zailtasunak gainditzeko aholkuak eman eta proposamenak egin. (B)
- Datu-taulak osatu, informazioa trukatu. (B) (C) (MO-1)
- Besteen lanak orrazteko proposamenak egin. (C)
- Grafikoak aztertu eta interpretatu. (MO-1)
- Hainbat jolas matematiko egiteko jarraibideak eman ikaskideei, jolasa egin dezaten. (MO-1)
- Nork bere familiaren berri eman ikaskideei, eta familien ezaugarriak alderatu. (A)
- Alderatu bi haurren inguruan dugun informazioa, eta antzekotasunak identifikatu. (MO-2)
- Alderatu hainbat web-orritan ematen den informazioa. (B)
- Azaldu hitzen eta esaldien esanahia haurrei egingo lieketen moduan. (B)
- Irakurritakoak zehazki zer esan nahi duen eztabaidatu. (B) (MO-1)
- Igarkizunak eta buruketak ebatzi; ebazpidea azaldu eta berriak proposatu. (A) (MO-1)
- Eztabaidatu irakurketa-lan hainbat gidatzeko irizpideez, eta egokienak hautatu. (B)
- Eztabaidatu idazketa-lan bat gidatzeko irizpideez, eta egokienak hautatu. (C)
- Gai baten inguruko informazio xehea eta iritziak jasoko dituzten artikulua idazteko irizpideak zehaztu. (C)

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Azalpen bat entzun eta informazio orokorra / xehea jaso. (A) (B) (MO-1)
- Inkesta batean hainbat zaharrek emandako iritziak ulertu eta alderatu. (C)
- Testuak eta argazkiak lotu. (A)
- Gai baten inguruko aurrezagutzak eragin. (B)
- Testu bat irakurri, eta atal bakoitzari dagokion izenburua bertan jarri. (MO-2)
- Testuak irakurri, eta ondorio orokorrak atera. (B)
- Testuko hitzen eta pasarteen esanahia argitzeko adibideak jarri. (B)
- Testu bat irakurrita, hainbat datu ondorioztatu. (MO-1)
- Testu bat irakurrita, zenbait datu zuzenak diren edo ez erabaki (MO-1)
- Testu batetik ideia nagusiak atera (C) (MO-2)
- Internet-eko orrien ezaugarriak antzeman eta erabili. (B) (C)

- Diagrama baten ahozko azalpena egin. (A)
- Argazki baten deskribapena egin ahoz. (A)
- Web-orri baten aurkezpena egin ahoz. (C)
- Nork bere familiaren ezaugarrien berri ahoz eman txandaka. (A)
- Haurren balizko galderei erantzun. (A) (C)
- Grafiko baten ahozko azalpena egin. (MO-1)
- Jolas baten jarraibideak ahoz azaldu. (MO-1)
- Pertsonaia baten aurkezpena egin, gezurrak txertatuz. (MO-2)
- Lehengo eta oraingo familien arteko alde nagusien zerrenda idatzi. (B)
- Artikulu bi egiteko ideiak sailkatu eta antolatu. (C)
- Testu batean falta diren xehetasunak erantsi. (C) (MO-1)
- Artikulu bat egiteko hiru proposamen egin, eta alderatu. (C)
- Testu-pasarteak zuzendu. (C) (MO-1)

### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- **Hiztegia:** pertsonen deskribapena. (A)
- **Deklinabidea:** noren, norekin, elkar. (A)
- **Alderaketa eta konparazioa** (B)
- **Kausa eta ondorioa** (B)
- **Adibidegintza** (B)
- **Azalpenen egitura:**
  - Nork bere buruaren eta bere familiaren aurkezpena. (A)
  - Kausa-ondorio egitura. (C)
  - Testu berriemaitzen egitura. (C)
  - Iritzien berri ematen duten testuen egitura. (C)
- **Informazioa argi emateko irizpideak** (C)
- **Zehar-estiloa erabiltzeko irizpideak** (C)

## 2. ATAZAK

### A ATAZA: NOLAKOA DA ZURE FAMILIA?

(180')

#### Helburu orokorra

- Nork bere familiaren ezaugarrien berri ematea ahoz.

#### Helburua zehatzak

- Ahaidetasun-harremanak zehaztea.
- Familiako kideen arteko harremanetan zein hizkuntza erabiltzen den adieraztea.
- Familiako kideen argazki bat deskribatzea, bertan agertzen direnen inguruko pasadizoak eta bitxikeriak erantsiz.
- Munduko hainbat haurren familien ezaugarriak alderatzea, eta geure familiarenak zerrendatzea.

#### Zertan den

- Ahaidetasun-harremanei buruzko haurren galderi erantzun, eta familiaren zuhaitz genealogikoa egin. Azaldu zein hizkuntzatan dituzten harremanak elkarren artean.
- Familiaren argazki-bildumak nolakoak izan ohi diren azaldu. Argazki bat deskribatzen ari den pertsona baten azalpena ulertu, eta horren antzeko bat egin.
- Munduko hainbat haurren kezka nagusiak identifikatu, beren familien ezaugarriekin alderatu, eta nork bere familiaren ezaugarriak zerrendatu.

### PROZEDURA:

## 1

#### Atazaurrea (10')

- Denen laguntzaz arbelean egin ahaidetasunarekin zerikusia duten hitzen zerrenda.
- Ikaslearen liburuan proposatzen diren galderi erantzun.

#### GALDERAK:

- Ama, aitaren arreba zure ahizpa al da?
  - Aita, zure aitak nolako ahaidetasuna du amarekin?
  - Asmakizun bat: gizon baten semearen izebaren alabaren ahizpa zer da gizon horrentzat?
  - Joxe ez dago ezkontuta Anerekin. Ez bada bere senarra, zer da?
  - Aita, nire seme-alabak zer izango dira zuretzat? Eta zu beraietzat?
  - Amona, zu aitaren ama zara. Ama zure alaba al da?
  - Ama, ni mutil batekin ezkontzen naizenean, bera zer izango da zuretzat?
  - Ama, ni ezkonduko banintz, neure emaztea zuen alaba izango al litzateke?
- Argitu ahaidetasunarekin zerikusia duen hiztegiaren gaineko zalantzak.

#### Ataza: nork bere familiaren zuhaitz genealogikoa egin (20')

- Ikasleei galdetu nolako zuhaitz genealogikoa egingo luketen beren hurrek: zein ahaide sartuko luketen eta zergatik.
- Bakarka nork bere zuhaitz genealogikoa egin dezala. Egiten duten irudian adieraz ditzatela bakoitzaren sexua, egoera zibila eta harremanetarako hizkuntzak.

#### GALDERAK:

- Zein hizkuntza ezagutzen dituzte (zituzten) familiako kideek?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten dute beren artean? Zergatik?
- Euskara zeinen artean erabiltzen duzue? Zein egoeratan?



- Binaka jarrita elkarri egin diezaiotela zuhaitz genealogikoaren azalpena. Entzuten ari dena, azalpena entzun ahala, zuhaitza paperean irudikatzen saiatuko da.

### Feedbacka (5')

- Alderatu egingo dituzte bi zuhaitzak, eta ulergaitasunak zertan izan diren argituko.

### Atazaostea (5-10')

- Taldean hitz egingo dute adierazi diren harreman-eredu berrien adibideei buruz: bikote homosexualak, izatezko bikoteak, bananduak.... Azal ditzakete ohiko familien aldean dituzten zailtasunak zein diren, nola baloratu izan dituen familiak berak horrelako harremanak...

### Gramatika (10-15')

- Adierazi NOREKIN eta NOREN deklinabide-kasuen erabileran izandako zailtasunak eta egindako akatsak. Askotan erabiliko zituzten eta ez, segur aski, beti ondo eta arintasunez.
- Adierazi ELKAR hitzaren erabilerarekin izandako zailtasunak eta sortutako zalantzak.
- Denen artean deklinabide-kasu hauek erabiltzen diren esaldien zerrenda bat egin:
  - “Amaia Aneren lehengusina da baina ez dute ia inoiz ELKAR ikusten”
  - “Amaiak ez du bere ANAIAREN antz handirik”
  - “Amaiak eta bere anaiak ez dute ELKARREN antz handirik”

## 2

### Atazaurrea (10')

- Taldeka, nolakoak diren etxean dituzten argazki-bildumak azalduko dute. Ikaslearen liburuan dauden galderei erantzungo diete.

#### GALDERAK:

- Nolakoak dira zure argazki-bildumak? Zein dira argazkiek jasotzen dituzten gertaera nagusiak? (ezkontza-ezteiak, urtebetetzeak, oporrak...)
- Bilduma asko al dituzu? Gustatzen al zaizu argazkiak ateratzea?
- Zure ustez, argazki-bildumek zenbateraino zehazten dituzte zure familiaren ezaugarriak eta ibilbidea?
- Beharbada etxetik albumen bat ekarri nahi izango dute. Erakuts diezaietela besteei.

### Ataza: argazki baten inguruko iruzkina entzun eta antzeko bat egin (20')

- Entzun *argazkiak ikusten* entzungaia. (I. eranskina) Entzun ahala, idatz dezatela ikaslearen liburuko argazkian nor den agertzen diren pertsonetako bakoitza.
- Berriz entzungo dute grabazioa. Taulan jasoko dute zer esaten den pertsona bakoitzari buruz.

| PERTSONAK    | DATUAK |
|--------------|--------|
| aiton-amonak |        |
| Aldo         |        |
| Idoia        |        |
| Amaia        |        |
| ama          |        |
| aita         |        |

- Beren albumetik hautatu duten argazkia deskribatzeko hiztegia zerrendatuko dute.

**ADINA:** umea, nerabea, gaztea, heldua, zaharra, X urtekoa,...

**ITXURA:** garaiera (altua, txikia,...), argala, gizona, ahula, sendoa,...

**AURPEGIA:** biribila, luzexka, begiak, begirada, masailak, belarriak, sudurra,...

**ILEA:** luzea, motza, orrazkera, kizkurra, ...

**IZAERA:** arretatsua, jatorra, harroa, setatsua, bihotz onekoa, zintzoa, ...  
**IKASKETAK ETA LANBIDEA:** ingeniaria, arotza, jostuna, informatikaria, ...  
 ...

- Argazkian agertzen diren pertsonen gertatutakoak jasoko dituzte ikaslearen liburuan duten taulan.

| PERTSONA | HARREMANA | BITXIKERIA |
|----------|-----------|------------|
|          |           |            |

- Argazkiaren azalpena egin beharko diete ikaskideei ereduaren antzera.

### Feedbacka (10')

- Entzuleek honako puntuen gaineko balorazioa eskainiko diete azalpena egin duenari:
  - Argazkia bereziki interesgarria edota originala iruditu zaizue? Zergatik?
  - Azalpena modu antolatuan egin du? Erraz segitu ahal izan duzue?
  - Aukera izan duzue galderaren bat egiteko? Zeuen galderei erantzuna egokiro eman die?
  - Xehetasunik adierazgarrienak azpimarratu ditu, ala burura etorri zaizkion kontu guztiak azaldu ditu, irizpide argirik gabe?
  - Argazkiko pertsonen ezaugarriak azpimarragarrienak ondo azaldu ditu?

### Atazaostea (5-10')

- Taldean azalduko dute zer nahiago duten: argazkiak atera, ala bideoan jaso familiaren gertakaririk garrantzitsuenak.
- Beren gustu eta gogoko dituzten alderdiei buruz hitz egin dezatela.

### Hiztegia: pertsonen deskribapena (10-15')

- Ikasleek gelako pertsona baten deskribapena egingo dute, eta besteek nor den asmatu behar dute.
- Ikasle batek gelako pertsona bat hautatuko du. Besteek galderak eginez nor den pertsona hori asmatu beharko dute.

## 3

### Atazaurrea (10')

- Taldeka, "Ni bezalako haurrak" liburuaren aurkezpeneko testua irakurriko dute. Bertan azpimarratuko dituzte aipatzen diren gai kezagarriak (2. eranskina: 'Munduko haurrak').
- Elkarrizketa: ea gai horiek beren seme-alabak kezkatzen dituzten eta, horrela bada, zenbateraino.

### Ataza: "Ni bezalako haurrak" liburuko hainbat pasarte irakurri, eta argazkiekin lotu (20')

- Hainbat haurren desirak jasotzen dituzten testuak irakurri (3. eranskina: 'Haurren desirak'), eta argazkiekin lotu.
- Familien deskribapenak irakurri (4. eranskina: 'Familiak'), eta eztabaidatu zein haurrenarenak diren.

### Feedbacka (10')

- Talde bakoitzean emandako erantzunak alderatu. Alderatu jatorrizkoekin.

ERANTZUNA:

| Haurra/Jatorria       | Deskribapena | Familia |
|-----------------------|--------------|---------|
| Yong-Koo (Hego Korea) | 1.a          | 4.a     |
| Bogna (Polonia)       | 2.a          | 2.a     |
| Rosita (Australia)    | 3.a          | 3.a     |
| Carlos (Mexiko)       | 4.a          | 1.a     |

### **Atazaostea (5')**

- Nork bere familiaren berezitasunak zerrendatuko ditu.
- Horien berri ahoz emango die ikaskideei.
- Besteen azalpenak entzunda berraztertu egindako zerrenda, eta interes berezirik gabeko ezaugarriak ezabatu. Interesgarriak izan daitezkeen beste batzuk erantsi.

### **Gramatika eta diskurtsoa: azalpenen egitura (15-20')**

- Talde batean aztertuko dute haurren adierazpenen egitura: zenbat atal dituzten, nola hasten diren, nola bukatzen diren... Irizpide batzuk ondorioztatuko dituzte.
- Beste talde batean aztertuko dituzte familien deskribapenak: zenbat atal dituzten, nola hasten diren, nola bukatzen diren... Irizpide batzuk ondorioztatuko dituzte.
- Binaka jarriko dira, eta elkarri azalduko diote nolako aholkuak emango dizkioten beren seme-alabei, antzeko lan bat taxuz egiteko.

**Helburu orokorra**

- Familiak ezagutu dituen aldaketei buruzko hainbat testu zehaztasunez ulertzea (zenbait amen esperientziak; aditu baten azalpena; erakunde batek argitara emandako gida); informazio korapilatsua argitzeko hainbat estrategia baliatuz.

**Helburua zehatzak**

- Hurrek testu-mota batzuk ulertzeko izango dituzten zailtasunak aurreikustea (beraieztat pentsatuak ez dauden testuak dira).
- Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa aztertu eta antolatzea, haurrari azalpen argi bat emateko.
- Haurrei "lerro artean" ulertzen dena harrapatzen laguntzeko estrategiak ezagutzea.
- Haurrei testu formalak ulertzen laguntzeko adibide egokiak ematea.

**Zertan den**

- Aditu batek egindako analisis oinarrituta, haurrari azaldu zertan aldatu den familiaren eredua.
- Ama batzuen testigantzak irakurrita, amatasuna eta lana bateratzeko dauden zailtasunak eta aukerako konponbideak zerrendatzea.
- Familia ugarien gida irakurri, eta pasarte ilunak ulertzen laguntzeko adibideak eman.

**PROZEDURA:****1****Atazaurrea (5')**

- Hurrek eskolan landuko dituzten hiru gaiet buruzko galderak irakurriko dituzte, eta ea inoiz antzekorik egin duten eta nolako gorabeherak izan dituzten adieraziko dute.

**GALDERAK:**

- Nolako aldeak daude zuen gurasoen garaiko familien eta oraingoan artean?
- Nolako familiak sortzen ari dira gaur egun?
- Nola aldatu dira amaren eginkizunak?

**Ataza: hainbat irakurketa-lanek izango duten zailtasuna aurreikusi (15')**

- Taldeka, gaien inguruan dakitena zehaztuko dute. Horretarako ikaslearen liburuan duten galdeketari erantzungo diote.

**GALDERAK:**

- Zein gai irudituko zaio interesgarriena zeuen seme edo alabari?
  - Hurrek galdetzen badizue zeuena nolako familia den, zer erantzungo diozue?
  - Zer esango diozue zeuen seme-alabari gai honi buruz oso modu errazean, berak ulertzeko moduan?
- Hurrek etxean egin beharreko lana irakurriko dute. Errepara diezaietela irakurri beharreko testuen ezaugarriak. Eztabaida dezatela nolako zailtasunak izango dituzten testu horiek irakurri eta ulertzeko.
    1. Galdetu etxean nolakoak ziren gurasoen eta aiton-amonen familiak eta zein diren egungo familiekin duten alderik handiena. Desberdintasun nagusien zerrenda bat eraman behar dute eskolara.
    2. Irakurri Eusko Jaurlaritzak familia ugariet laguntzeko egin duen gidaren aurkezpena, eta identifikatu bertan jasotzen diren ideia nagusiak.

3. Aldizkari batean "amatasuna eta familia" izenburupean jasotako hainbat testigantza eman dizkie irakasleak aztergai. Horiek irakurri, eta ama askok lana eta familia bateratzeko dituzten zailtasunak eta horiek konpontzeko erabiltzen dituzten bideak zerrendatu behar dituzte.

### Feedbacka (5')

- Irakasleak arbelean idatziko ditu hiru testuren aipamenak: "Ama batzuen testigantzak"; "Adituen azalpena"; "Erakunde batek argitara emandako gida bat". Bakoitzaren azpian jaso ditzala ikasleek aurreikusitako zailtasunak.
- Ondoren, eskatuko die pentsatzeko zeintzuk izan daitezkeen haurrari laguntzeko aukerako estrategiak.

### Atazaostea (5')

- Taldeka, hiruretatik zein uste duten izango zaiola zailen haurrari eta zergatik erabakiko dute. Era berean, umeei zein egingo duten gusturago.

## 2

### Atazaurrea (15')

- Banaka bete dezatela liburuan duten taularen hirugarren zutabea.
- Elkarri eman diezaiotela bertan jaso dutenaren berri. Identifika ditzatela errepikatzen diren ideiak.

### Ataza: azalpen bat entzun, eta familiak izan dituen aldaketen inguruan zenbait ondorio atera (20')

- Familiaren inguruko elkarrizketa (V. eranskina) entzungo dute behin. Taula beteko dute entzundako informazioarekin.
- Erantzunak alderatu egingo dituzte. Beharrezkoa bada, entzun dezatela bigarren aldiz erantzunak berresteko.
- Taldeka liburuan dituzten galderari emango diete erantzuna.

#### GALDERAK:

- Alde handiak daude norberak haurtzaroan ezagutu zuen familiaren eta oraingoaren artean?
  - Zer dute garai bateko familien eredutik? Zer dute egun nagusitzen ari den familiaren eredutik?
  - Hori arazoentz iturri al da? Zergatik?
- Zerrenda batean jasoko dituzte familiak izan dituen aldaketa nagusiak.

#### ERANTZUNA:

| GALDERA HAUETAN EGON DIREN ALDAKETAK      | LEHENGO FAMILIA  | ORAINGO FAMILIA   | GEURE FAMILIA LEHEN ETA ORAIN |
|---|--|---|-------------------------------|
| Zer da familia?                           | erakundea  | kontratua   | -----                         |
| Zein da familiaz dugun kontzeptua?        | unitate ekonomiko, erlijiosoa, goitik beherakoa eta osaba-izebak, lehengusuak ere bai. | 1 edo 2 edo hiru pertsonaz osatutakoa, iraunkorra ez dena.                                  |                               |
| Nola elkartzen da familia? Zenbat senide? | 3 belaunaldi, oso otordu jendetsuak, baserrietan, oso maiz                             | Normalean 2 belaunaldi, partaide gutxiak eta batzuetan ez gogoz (etxe txikietan bizi gara). |                               |

|                                     |                                     |   |  |
|-------------------------------------|-------------------------------------|---|--|
| Zer gertatzen da zaharrekin?        | erabat integratuak famili unitatean | askatasuna dago zaharrak baztertzeko.   |  |
| Non elkartzen da familia? Zergatik? | baserrietan, 20-30 lagun            | etxeak oso txikiak direnez, askotan soziedadean (baserri giroko herrietan oraindik baserrian) |  |

### Feedbacka (5')

- Elkarrekin trukatu zerrendak. Esan elkarri ezaugarri garrantzitsuenak jasota dauden ala norbaiten hutsa igartzen den egindako zerrendan.

### Atazaostea (5')

- Irakurriko dute "puxikan" jasota dagoen leloa, eta adieraziko dute nolako lotura duen egin berri duten lanarekin eta zertan laguntzen dien irizpide horrek, haurrei beren lanetan laguntzeko.

LELOA:

#### FUNTSEZKO IDEIAK, ARGI

Mila galdera, mila erantzun... baina dena ilun.

Hortik zerbait argi atera ahal izateko, lau edo bost funtsezko ideiatara ekarri beharko.

### Gramatika eta diskurtsoa: alderaketak egiten (15-20')

- Ikasleek idatzitako zerrendatik hainbat adibide hautatuko ditu irakasleak eta proposatuko die bereizteko konparazioen bidez eta kontraste-egituren bidez egindako esaldiak. Eragiketa bi horiek egiteko baliagarriak diren gramatika-egituren zerrenda egingo dute.
- Ikasleek egindako beste esaldi-zerrenda bat emango die, berridatz dezaten, edota, akastunak badira, zuzen ditzaten.

## 3

### Atazaurrea (15-30')

- Zabalik astekaria edota antzekorik irakurtzen duten galdetu. Adieraz dezatela haurrek horrelako aldizkariaren bat (herri-aldizkariak, gehigarriak, arruntak...) irakurri ohi dituzten ala ez.
- Zabalik astekariaren moduko aldizkari baten hainbat ale eraman gelara (Zabalik astekaria bera, edo besteren bat ere lasai eraman), gainbegira ditzaten. Beren iritzia eman dezatela.
- [www.zabalik.com](http://www.zabalik.com) orria bisita dezatela internet-en eta ikus dezatela nola dagoen antolatuta eta nolako zerbitzu osagarriak dituen. Horrezaz gain: [www.argia.com](http://www.argia.com), edo [www.egunkaria.com](http://www.egunkaria.com) ere azter genitzake, adibidez. Herriko astekaria balego, horixe bera izan liteke.

### Ataza: haurrari komunikabide batean argitara emandako hainbat testigantzatatik datu zehatzak bereizteko estrategia bat eztabaidatu. (20')

- Testuak irakurri (VI. eranskina: 'Testigantzak'), eta zerrenda horiek osatuko dituzte, bertan azaltzen diren ideiak erabilita. Alderatu erantzunak.

ERANTZUNA:

| ARAZOAK  | KONPONBIDEAK  |
|--|---|
| - denborarik ez, umeen heziketa eta lana batera eramateko. | - gizonaren parte-hartzea umeen heziketan eta zainketan |
| - Laguntza gutxi.  | - gurasoen laguntza (amonarena, batez ere)              |

- Testuetan egiten den moduan, nork bere esperientziaren berri eman dezala ahoz.

- Testu horien irakurketa gidatzeko emandako irizpideak ordenatu modu logikoan.

ERANTZUNA: (ez da aukera bakarra)

1. Azalduko diot nola zegoen antolatua familia lehen, eta galdera batzuk egingo dizkiot, aldea ikus dezan.
2. Galdera batzuk egingo dizkiot, pertsona horiek esan dutena ulertu duen ala ez jakiteko.
3. Eskatuko diot azpimarratzeko gorritz zailtasunekin zerikusia duten esaldiak eta urdinez konponbideei buruz hitz egiten dutenak.
4. Hizketa-gai izango dugu zergatik dauden pertsona horiek egoera horretan eta nik neuk nola bizi dudana ama/aitatasuna.

#### Feedbacka (5')

- Alderatu egindako proposamenak, eta arrazoitu.

#### Atazaostea (5')

- Irakurriko dute "puxikan" jasota dagoen leloa.

LELOA:

#### EZKUTUKOA, AGERI

Testu askotan lehen begiratuan ikusten dena baino gehiago dago. Begia zorroztu behar!

- Nolako lotura duen egin berri duten lanarekin adieraziko dute, eta zertan laguntzen dien irizpide horrek haurrari beren lanetan laguntzeko.

#### Gramatika eta diskurtsoa: kausak eta ondorioak (20-25')

- Ikasle-talde batek hartuko du arazoan zerrenda. Azter ditzatela banan-banan, eta erabaki dezatela zerk eragiten duen zailtasun hori, edota zergatik gertatzen diren ama horiek kontaktzen dituzten gauzak.
- Beste ikasle-talde batek hartuko du konponbideen zerrenda. Banan-banan azter ditzatela eta erabaki dezatela zer lortuko den proposatutako ideia bakoitzarekin.
- Binaka jarrita, elkarrizketa diezaiotela nondik sortzen diren zailtasun nagusiak eta zenbateraino diren eraginkorrak proposatutako konponbideak.
- Grabatu azalpenak. Entzun ditzatela ikasleek eta identifika ditzatela kausa-ondoriozko pasarteak eta erabilitako egiturak.

## 4

#### Atazaurrea (10')

- Ikasleei eskatuko diegu beren iritzia eman dezaten haur gehiago ez izateko dauden arrazoiei buruz. Eman dezatela beren iritzia erakundeek ematen dituzten laguntzei buruz.

#### Ataza: administrazioak argitaratu emandako gida baten irakurketa azkarra egin, eta haurrari ezezagunak edota arrotzak gertatuko zaizkion hitzak eta kontzeptuak argitu. (30')

- Testuari lehen irakurketa emango diote ikasleek (<http://www.euskadi.net/familixartela/datos/familiasnumerosas.pdf>), eta haurrei ulergaitz gertatu ahal zaizkion hitzak eta kontzeptuak azpimarratuko dituzte.
- Hiztegian begiratuko dituzte hitz ezezagunen esanahiak.
- Txandaka ikasleak saiaturiko dira hitz eta kontzeptu horien esanahia argitzeko azalpen bat ematen.

#### Feedbacka

- Ikasleek azalpena entzundakoan (edota entzun ahala) galderak egingo dizkiote azalpena ematen ari denari, ondo ulertzen ari direla egiaztatzeko, edota azalpen osagarriak eskatzeko.

#### Atazaostea (10')

- Taldeka, proposatzen zaizkien aukeren artean zein den haurrari testua irakurtzen laguntzeko egokiena hautatuko dute. Kontuan hartuko dituzte testuko zailtasunak.

IKASLEAK DITUEN AUKERAK:

- a) Testua ozenki irakurriko dut, eta esango diot, zalantzaren bat baldin badu, lasai galdetzeko.
- b) Irakurtzen hasi aurretik, nire ustez ulertuko ez duena berak galdetu gabe azalduko diot, eta, horrela, hobeto ulertuko du testua gero.
- c) Lehendabizi, berak irakur dezala, eta, ondoren, elkarrekin irakurriko dugu, ulertzen ez duena azpimarratuz, eta azalpenak eman aurretik zenbait galdera egingo dizkiot, berak pentsa dezan.
- d) Esango diot horrelako testuetan protokolo asko dagoela eta horregatik ez duela dena ulertu behar, berari interesatzen zaiona besterik ez. Lana egiteko behar dituen ideiak ateratzen lagunduko diot, eta gainontzekoa alde batera utziko dugu.

**Ataza: administrazioak argitara emandako gida baten irakurketa xehea egin, eta haurrari ezezagunak edota arrotzak gertatuko zaizkion pasarteak argitzeko adibideak hautatu. (20')**

- Taldetxotan jarrita, testutik erauzitako esaldiak eta ideia horiek argitzeko proposatzen diren adibideak lotuko dituzte.

ERANTZUNA: (1-b / 2-c / 3-a)

| TESTUKO ESALDIAK  | ADIBIDEAK   |
|---|---|
| 1.- Familiak babesteko eta sustatzeko neurriak hartzen hasi gara (Fusko Jaurilaritza)   | a) Amonak ez zuen lan egiten etxetik kanpo, bera etxean gelditzen zen etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen. Orain, aitak eta amak egiten dugu lan, bai etxean eta bai kanpoan, eta horrek asko aldatu du familiaren antolaketa. Ikusten duzu: batzuetan etxea ez dago hain garbi, edo lanetik ateratzeko baimena eskatu behar dut gaixorik zaudenean,... eta beti ez da erraza izaten dena eramatea |
| 2.- Pertsona guztiok gara familia batekoak, guztiok hazten gara familia batean, guztiok sozializatzen gara familian eta familia da gure giza heziketarako eskola. | b) Gobernuak laguntza batzuk ditu; adibidez, zure anaia jaio zenean ama denbora batean ez zen lanera joan, umea oso txikia zelako, eta, bitartean, soldata jasotzen ari zen, baina oso denbora laburrean (40 astez). Beste herri batzuetan 9 hilabete edo urtebete ematen dute.   |
| 3.- Emakumea lan egiten hastea eta ezkontideen lana familiarekiko betebeharrekin lotzea, horra hor aurrean ditugun erronka nagusienetako bi.                      | c) Familia barruan egiten ditugun gauza guztiak oso garrantzitsuak dira; pentsa ezazu zenbat gauza ikasten dituzun gurekin zauden bitartean. Gainera, triste zaudenean, edo kezkatuta, hementxe gaude gu, zu babesteko. Ahalegin handia egiten dugu etxean, zuk gero etxetik kanpo ondo moldatzeko.   |

- Ematen zaizkien bi ideiak argitzeko adibideak eurek hautatu eta idatziko dituzte; gauza bera egingo dute ulergaitzak iruditzen zaizkien beste pasarte batzuekin.

|   |  |
|---|--|
| Badakigunez, garrantzitsua da familia, familiak bizitza pertsonalean eta gizartean duen betebeharra bultzatu eta familia ugariari zor zaien begirunea eskaini nahi diegu. |  |
| Euskadin 52.000 familia ugari baino gehiago bizi direnez, familia horiei erantzun berezia emateko gogo biziaren emaitza da Gida hau                                       |  |



### **Feedbacka (10-15')**

- Adibideak taldekideei irakurri, eta denen artean egokienak hautatuko dituzte. Beharrezkoa bada, botoetara jo dezakete.

### **Atazaostea (5')**

- Irakurriko dute "puxikan" jasota dagoen leloa. Nolako lotura duen egin berri duten lanarekin adieraziko dute eta zertan laguntzen dien irizpide horrek haurrari bere lanetan laguntzeko.

LELOA:

#### **ETA GUZTIA, OSO GARBI**

Adibideak eta azalpenak baliabide ezin hobekak dira, informazio nagusia ulertu(ko) dela ziurtatzeko.

### **Gramatika eta diskurtsoa: adibidegintza (15')**

- Ikasleak binaka jarriko ditugu: bat gurasoa izango da eta bestea haurra. Rolak txandaka aldatuko dituzte.
- Gurasoak haurrari argituko dio zer esan nahi duten testuko esaldiek, adibide batzuk emanda. "Haurrak" apuntatuko du zer-nolako artikulazioak (adibidez, horrek esan nahi du, begira, horixe da...) erabili dituen, adibidea azalpenean txertatzeko.
- Arbelean zerrendatuko dituzte jasotako artikulazio guztiak, eta sortutako zalantzak argituko dituzte.

**Helburu orokorra**

- Eskolako aldizkarirako bi artikulua idazteko prozesua gidatzea.

**Helburua zehatzak**

- Artikulu bat prestatzeko informazioa aztertzea eta hautatzea modu selektiboan.
- Internet-en gaiaren inguruan hainbat erakunde dituzten web-orriak aztertzea eta ustiatzea.
- Haurrek idatzitako testuak osatzea eta orraztea.
- Artikuluak idazteko bi aukera alderatzea.

**Zertan den**

- Eskolan agindutako lanak egiteko jarraibideak eztabaidatzea.
- Internet-en dagoen informazioa aztertu, eta haur baten testua osatzeko proposamenak egin.
- Zahar batzuek gaiari buruz duten iritzia aztertu, eta horiek jasotzen dituen testua orrazteko proposamenak egin.
- Artikuluak egiteko bi eredu alderatu.

**PROZEDURA:**

Haurrei honako gai hau egokitu zaie eskolan: "zaharrentzako laguntzak: zer eskaintzen dute erakundeek?", eta bi aukera eman diete:

- Zaharrentzako laguntzei buruzko informazioa jasotzea, edo
- Zaharrentzako dauden zerbitzuez zaharrek duten iritzia jasotzea

**1****Atazaurrea (10-15')**

- Haurrek egindako galderak irakurri ondoren, zer erantzungo luketen adieraziko dute.

**GALDERAK:**

- Aita, zergatik bizi da amona bolada batean izebaren etxean eta beste bolada batean hemen?
- Zergatik elkartzen dira zahar guztiak udaletxepean dagoen taberna horretan?
- Nora eramaten dute goizero aitona Fernando autobus txiki horretan?
- Zergatik ezin gara aitona-amonekin Benidorrera gu ere joan?
- Zer dira pentsioak? Zergatik esaten du beti amonak agintariak zeken baino zekenagoak direla?

**Ataza: irakasleak haurri agindu dion etxeko lana egin ahal izateko jarraibideak erabaki (15')**

- Taldeka, osa ditzatela ikaslearen liburuan dituzten fitxak. Fitxa horietan jasota daude irakasleak haurri emandako jarraibideak.

**JARRAIBIDEAK:**

- Azaldu nolako laguntzak ematen dituzten erakundeak.
- Jaso zahar-etxeetan eta egon ohi diren pertsonen iritzia.
- Kontatu nola bizi diren ezagutzen dituzun aitona-amonak, nolako arazoak dituzten...
- Esan zer egin dezakeen jendeak aitona edo amona horrelako tokiren batera eraman edo ez zalantzan badabil
- Esan jendeari non aurki dezakeen laguntzei buruzko informazio gehiago. Aipatu erabili dituzun esku-orriak, interneteko helbideak...

- Ondoren, bi artikuluetarako informazioa nondik eskuratu pentsatuko dute.

## INFORMAZIO-BIDEAK:

- Aiton-amonei galdetu, inkesta bat egin herriko zaharren etxean, gurasoei galdetu...
- Jo internetera eta aurkitu dauden laguntzen inguruko informazioa, edo, bestela, galdetu udalaren informazio-bulegoetan.
- Galdetu gelako kideei, etxekoei...

## ERANTZUNA:

| A AUKERA  |
|---|
| HELBURUA:<br>Zaharrentzako laguntzei buruzko informazioa jasotzea.  |
| TESTUA EGITEKO GIDA:<br><b>1.</b> Kontatu ezagutzen dituzun aiton-amonak nola bizi diren, nolako arazoak dituzten...<br><b>2.</b> Azaldu nolako laguntzak ematen dituzten erakundeek.<br><b>3.</b> Esan jendeari non aurki dezakeen laguntzei buruzko informazio gehiago. Aipatu erabili dituzun esku orriak, internet-eko helbideak... |
| <input type="checkbox"/> Galdetu gelakideei, etxekoei...<br><input type="checkbox"/> Jo internet-era, eta aurkitu dauden laguntzen inguruko informazioa, edo bestela, galdetu udalaren informazio-bulegoetan<br><input type="checkbox"/> ...  |

| B AUKERA  |
|---|
| HELBURUA:<br>Zaharrentzako zerbitzuei buruz jendeak (zaharrek eurek) duen iritzia azaltzea.   |
| TESTUA EGITEKO GIDA:<br><b>1.</b> Azaldu nolako laguntzak ematen dituzten erakundeek.<br><b>2.</b> Jaso zahar-etxeetan, zaharren egoitzetan... egon ohi diren pertsonen iritzia.<br><b>3.</b> Esan zer egin dezakeen jendeak aitona edo amona horrelako tokiren batera eraman nahian edo zalantzan badabil. |
| <input type="checkbox"/> Galdetu gelakideei, etxekoei...<br><input type="checkbox"/> Aiton-amonei galdetu; inkesta bat egin herriko zaharren etxean; gurasoei galdetu...<br><input type="checkbox"/> ...  |

**OHARRA:** kontuan izan gida osatzeko bost jarraibide dituztela; beraz, bada bat bi testuetarako balio duena.

### Feedbacka (5'-10')

- Taldekideei emango diete erabaki dutenaren berri. Proposamen ezberdinak badaude, eztabaida dezatela zein den jatorrizkoa.
- Aldera dezatela jatorrizkoarekin. Berrets edota bazter dezatela beren proposamena.

### Atazaostea (5')

- Irakurriko dute "puxikan" jasota dagoen leloa.

#### LELOA:

NOLA EKIN LANARI?  
Ziurtatu ondo ulertu duzula lanaren helburua  
Ondo aztertu zein informazio behar duzun zehazki  
Ez galdu denbora inguruko orrialdeetan; jo zuzenean behar duzuna jasotzen duen atalera.  
Hartu soil-soilik behar duzun informazioa.

- Elkarrizketa: ea beren hurrek bertan jasotako jarraibideak segitzen dituzten, ala irizpide garbirik gabe aritzen diren.
- "Burua nekatzen ez duenak, hankak nekatu behar" esaera zaharrak aztertzen ari garenarekin izan dezakeen loturaz hitz egingo dute.

## 2

### Atazaurrea (10')

- Ikasleek adieraziko dute ea ordenagailua duten, edota herrian ordenagailua erabiltzeko aukera baduten. Internet-i buruz zer dakiten azal dezatela, baita nolako esperientzia duten internet-a erabiltzen ere.

### Ataza: internet-en zenbait erakundek dituzten web-orriak arakatu eta aurkeztu (30- 90')

- Ikasleei hainbat helbide elektroniko emango diegu. Bakoitzak atari horietako batean dagoena gainbegiratu du: zer-nolako informazioa dagoen, zerbitzuak, erabilgarritasuna... Ikasleen liburuan dagoen taulan jasoko dituzte inpresioak.

| WEB-ORRIA  | NOLAKOA DA ORRIA? | XEHETASUNAK |
|--|-------------------|-------------|
| <a href="http://www.gipuzkoa.net">www.gipuzkoa.net</a><br><a href="http://www.bizkaia.net">www.bizkaia.net</a><br><a href="http://www.alava.net">www.alava.net</a><br><a href="http://www.cfnavarra.es">www.cfnavarra.es</a> |                   |             |
| <a href="http://www.donostiasocial.com">www.donostiasocial.com</a>   |                   |             |
| <a href="http://www.consumer-revista.com">www.consumer-revista.com</a>   |                   |             |

**OHARRA:** Ordenagailua ikasgelan erabiltzeko aukerarik ez baduzue, jo ezazue Udalera edota beste erakunderen batera. Segur aski, dohain erabiltzeko aukera izango duzue. Beste aukera bat da etxean duenak bertan begiratzea.

- Txandaka, taldeko kideei egin diezaietela orriaren aurkezpena. Ahal dela pantailaren aurrean egin dezatela eta, baita, bertan dagoenaren erakustaldia ere.

**OHARRA:** gerta liteke ikasleak oso trebeak ez izatea ordenagailuarekin. Horrela bada, aukera honetaz baliatu daitezke, beren ezagutzak zabaltzeko, eta, era horretan, ataza bera ere errealagoa izango litzateke.

### Feedbacka (10')

- Ikasleek azalpena entzun ahala taula beteko dute. Azalpena bukatu ondoren, galderak egingo dizkiote azalpena egin duenari zalantzak argitzeko.

- Nolako informazioa du orri horrek? Erraza al da bertan gai zehatz bati buruzko informazioa aurkitzea?
- Nola aurki daitezke zaharrei eskainitako laguntzak edo antzeko ideiak orri horretan? Erraza al da erabiltzea? Zein dira zailtasunak?
- Interesgarria iruditzen al zaizue aurkitu duzuen informazioa haurrak egin behar duen lanerako? Ulertuko al du bertan dagoen informazioa, ala laguntza beharko du?

### Ataza: internet-eko orri bat arakatu, testua eratzeko behar den informazioaren bila (45')

- Ikasleek eman diegun helbide elektronikoren batera joko dute, eta zaharrentzako laguntzak azaltzen duen atala bilatuko dute.

**GIZARTE ZERBITZUAK**



**ZERBITZUEN AURKIBIDEA**



**BILATU**

- Bakoitzak zerbitzuetako bat aztertuko du, eta taulan dagozkion hutsuneak beteko ditu eskuratu duen informazioarekin.

| ZERBITZUA                        | NORENTZAT   | ZER DA?  |
|----------------------------------|---|--|
| EGUNEKO ZENTROAK                 | Bere etxean edo familiarekin bizi nahi duten zaharrentzat |  |
| ADINEKOENTZAKO HARRERA-FAMILIAK  |   |  |
| ZAHARREN ETXEAK                  |   |  |
| ALDI BATERAKO EGOITZA-EGONALDIAK |   | Zaharrak zaintzen dituzten familiek oporrak edo hartzeko, egoitza batean sartzen dira, baina bolada batean bakarrik. |
| EGOITZAK                         |   |  |

**OHARRA:** ordenagailurik izan ezean, paperean inprimatuta bana daitezke zerbitzuei buruzko informazio-orriak.

- Informazioaren berri emango diote elkarri, eta denen artean taula osatuko dute.
- Informazio hori erabili, talde bakoitza arduratuko da haurraren testuan falta den pasarte bat idazteko.

HAURRAREN TESTUA (erdi-eginik):

Amona asko maite dut, gustura egoten naiz berarekin ipuinak irakurtzen, karta-jokoan, sukaldean bizkotxoak prestatzen..., baina gero eta zaharrago dago. Orain ezin da bakarrik geratu ezta minutu bat ere.

Ikerren aitona-amonak bakarrik bizi dira, baina familia kezkatuta dago. Ez dira oso ondo moldatzen.

Amaiaren aitona ezin da kalera atera, ezin dituelako eskailerak berak bakarrik jaitsi.

Interneten begiratu dut, nolako laguntzak dauden jakiteko, eta ikusi dut asko daudela eta oso desberdinak:

- **EGUNEKO ZENTROAK.** Zentro hauek ondo daude bere etxean edo familiarekin bizi nahi duten zaharrentzat. Eskolara joatea bezala da: eskulanak egiten dituzte, memoria lantzeko ariketak, soinketa... Han bazkaltzen dute, eta arratsaldean itzultzen dira etxera.
- **ADINEKOENTZAKO HARRERA-FAMILIAK :**
- **ZAHARREN EGOITZAK:**
- **ALDI BATERAKO EGOITZA-EGONALDIAK:**

Orduan, norberak ikusi behar du bere kasua zein den eta horren arabera erabaki. Informazioa hurrengo web-orri horietatik atera dut:

[www.donostiasocial.com](http://www.donostiasocial.com)  
[www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) / [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) / [www.alava.net](http://www.alava.net) / [cfnavarra.es](http://cfnavarra.es)  
[www.consumer-revista.com](http://www.consumer-revista.com)

Eta zuek ere, informazio gehiago nahi baduzue, bertan begira dezakezue.

### Feedbacka (15')

- Irakurriko dituzte liburuan jasotako aholkuak

LELOA:

#### **AZALPENAK: ZEHATZ ETA ARGI**

1. Eman informaziorik adierazgarriena hasieran
2. Eman xehetasun osagarri batzuk; jarri adibideren bat
3. Idatzi esaldi laburrak, eta, posible bada, egin esaldi soilak
4. Erabili hitz zehatzak eta egokiak

- Idatzitako pasarteak elkarrekin trukatu, eta erabaki emandako irizpideak zaintzen dituzten ala ez. Orraztu.

## 3

### Atazaurrea (10')

- Ikasleek erantzungo diete liburuan jasota dituzten haurren galderari, eta adieraziko dute nola sentitzen diren hain galdera zuzenak erantzutean.

#### GALDERAK:

Zuri gustatuko al litzaizuke zahartzean egoitza batean bizitzea?

Zer nahiago zenuke: beste zahar batzuekin pisu batean bizi ala familia berri baten etxera joan?

Zergatik ez du nahi amonak zaharren topalekura joan edota ikastaroak egin besteek bezala?

### Ataza: hainbat zaharrek galdeketa bati emandako erantzunak ulertu eta testua egiteko informazio baliagarria hautatu (30')

- Zahar-etxeari buruzko elkarrizketa (VII. eranskina) entzungo dute ikasleek. Entzun ahala, liburuan dituzten galderen inguruko xehetasunak jasoko dituzte.

#### GALDERAK:

Nola sentitzen dira grabazioko zaharrak? Zer moduz daude osasunez?

Zaharren ustez, norentzat dira egokiak zaharren egoitzak? Zein egoeratan?

Zergatik ibiltzen dira bertako zahar batzuk kexuka?

Zein dira zaharren egoitzen alde onak? Zertan hobetzen da zaharren bizi-kalitatea bertara joanda?

Zeintzuk dira beren alde txarrak?

- Oharrak alderatuko dituzte, eta taulak osatuko. Irrati-pasarte berririko entzungo dute jasotako informazioa berresteko.
- Taldeka, eztabaidatuko dute jasotako xehetasunetatik zein diren garrantzizkoak, haurrak egin behar duen testua egiteko. Talde bakoitzak beren erabakia jakinaraziko die besteei.

### Feedbacka (5')

- Hurrengo orrialdean duten testua irakurriko dute. Testu berria egiteko, bestalde, haurrak hautatutako informazioari erreparatuko diote. Eta bukatzeko, beren aurreikuspenarekin alderatuko dute.

Zaharrek laguntza asko behar dute; horregatik, erakundeek hainbat zerbitzu jarri dituzte. Gure inguruan ere badaude zaharrak —adibidez, aiton-amonak—, eta beraiekin hitz egin dugu, beren iritzia jakiteko.

Esate baterako, gure amona etxean bizi da gurekin, baina goizean eguneko zentro batera joaten da. Hasieran ez zen fidatzen, eta ez zuen joan nahi, baina hasi zenean oso dibertigarria iruditu zitzaion. Soinketa egiten dute goizero, eta eskulan asko egiten dituzte. Gero etxera ekartzen ditu, eta ilusio handia egiten digu denoi. Hara joaten denetik alaiago dago.

Ikerren aiton-amonek bakarrik bizi nahi dute, esaten dute ez dutela egon nahi zaharren artean. Orduan, pertsona bat joaten da beraien etxera egunero, etxeko lanak egitera. Horrela, lasai-lasai bizi dira, eta nahi dutena egiten dute.

Zahar-egoitzak ere ez daude gaizki. Zahar batzuekin hitz egin dut, eta esan dute, osasunez gaizki bazaude, ondo daudela. Esan dute, baita ere, ondo preparatuta daudela, ez duzula ezertaz kezkatu behar, bingoan ere aritzen direla. Badituzte gauza txar batzuk ere: esan didate badaudela pertsona batzuk beti ernegatuta daudenak, eta beti kezaka daudela, baina beraiek esan dute pertsona horiek toki guztietan kekatzen direla. Beraiek esaten dute lasai egon nahi dutela, eta ondo pasatu.

Ikusten da kasu bakoitza desberdina dela, eta horregatik daude laguntzak. Laguntza bat aukeratu behar baduzu, informazio asko jaso, eta ondo pentsatu. Nahi baduzu, interneten begira dezakezu ondorengo orri hauetan:

[www.donostiasocial.com](http://www.donostiasocial.com)  
[www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) / [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) / [www.alava.net](http://www.alava.net) / [cfnavarra.es](http://cfnavarra.es)  
[www.consumer-revista.com](http://www.consumer-revista.com)

### Gramatika eta diskurtsoa: zehar-estiloa (20')

- Koloreztatutako pasarteak aztertuko dute, eta zer duen gaizki esango dute.
- Beren hipotesiak azaldu ondoren, argituko zaie bi akats nagusi dituela: ESAN aditzaren gehiegizko erabilera eta zehar-estiloko egituren erabilera okerra. Zuzentzeko proposatuko diegu.

**ADITZAK:** Azaldu, adierazi, aipatu, azpimarratu, jakinarazi, uste, pentsatu, iruditu, pentsatu, adierazi, erantzun, aditzera eman

#### EGITURAK:

- Esaten dute .....-(E)LA
- Esaten dute NEZ, .....Ø
- Batzu EN USTEZ, ..... Ø
- Batzuen IRITZIZ, ..... Ø.

- Zuzendutako pasarteak elkarrekin trukatu dituzte, eta "puxikan" jasotako oharrik Irakurriko dituzte eta, beharrezkoa denean, testua orrazteko proposamenak egin.

LELOA:

#### BESTEEN HITZAK EGOKI TXERTATU

- Argi utzi zeinen hitzak diren aipatuko dituzunak.
- Ondo hautatu aditza, oso desberdinak baitira, adibidez, konparatu bi hauek:
  - Pentsatzen dute zerbitzuak onak direla.
  - Ikusi dute zerbitzuak onak direla.
- Aipamena hitzez hitz sartu behar baduzu, "komatxoak" erabili.

Aipamena zehar-estiloan sartu behar baduzu, kontuz ibili aditzekin eta (-TZEKO, -ELA...).

## 4

### Atazaurrea (10')

- Ikasleei artikulua idazteko "errezeta" emango diegu.

#### ARTIKULUAK EGITEKO ERREZETA BAT: ARAZOEN KONPONBIDEA

1. Hasi kontaktzen eskolan, zeure inguruan, herrian... gertatutako zerbait gaiarekin zirikusia duena.
2. Ondoren, azaldu zein den arazoa
3. Proposatu konponbidea
4. Amaieran, animatu jendea zerbait egitera

- Ondoren, haurrek unitate honetan proposatutako zirriborroek "errezeta" horri segitu dioten ala ez eztabaidatuko dute.
- C ATAZAN barrena egindakoa berraztertuko dute, eta artikulua idazteko ikusitako bi eredu berriei dagokiekeen "errezeta" jasoko dute emandako "puxiketan".

**Ataza: "Gero eta haur gutxiago jaiotzen dira" izeneko gaia garatzeko, hiru proposamen egin hurrei (30')**

- Artikuluan aipa daitezkeen puntuak zerrendatuko ditugu arbelean.
- Ikasleak hiru taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak har dezala artikulua egiteko ikusi ditugun errezeten arteko bat, artikulua egiteko proposamen bat zehazteko, eredu horri jarraituta.

|  |
|--|
| <p><u>Artikulu egiteko jarraibideak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hasi azaltzen / kontatzen / aipatzen.....</li> <li>➤ Ondoren, .....</li> <li>➤ Gero jarraitu, .....</li> <li>➤ Artikuluaren amaieran.....</li> </ul> |
|--|

**1. ERREZETA: "Nola ekin lanari?"**

- Ziurtatu ondo ulertu duzula lanaren helburua.
- Ondo aztertu zein informazio behar duzun zehazki.
- Ez galdu denbora inguruko orrialdeetan; jo zuzenean behar duzuna jasotzen duen atalera.
- Hartu soil-soilik behar duzun informazioa.

**2. ERREZETA: "Azalpenak: zehatz eta argi"**

- Eman informaziorik adierazgarriena hasieran.
- Eman xehetasun osagarri batzuk; jarri adibideren bat.
- Idatzi esaldi laburrak, eta, posible bada, egin esaldi soilak.
- Erabili hitz zehatzak eta egokiak.

**3. ERREZETA: "Arazoen konponbidea"**

- Hasi kontatzen eskolan, zeure inguruan, herrian... gertatutako zerbait, gaiarekin zerikusia duena.
- Ondoren, azaldu zein den arazoa.
- Proposatu konponbidea.
- Amaieran, animatu jendea zerbait egitera.

- Elkarri emango diote prestatutako ideien berri. Zein gustatu zaie gehien?

**Feedbacka (5')**

- Ikasleek adieraziko dute ea horrelako "errezetak" ezagutzea zenbateraino iruditzen zaien baliagarri, beren seme-alabei idazketa-lanetan laguntzeko.



### 3. MATERIAL OSAGARRIA

#### A. HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

(150')

##### Helburu orokorrak

- Familiaren egitura eta tamainari lotutako jolas matematiko batzuk egitea.
- Datu estatistikoak aztertzea, grafikoki adieraztea eta interpretatzea.

##### Helburu zehatzak

- Logika matematikoaz baliatuta zenbait eragiketa burutzea.
- Datuak erkatuta taula bat osatzea; taulan oinarrituta grafiko bat egitea eta zuzen ulertzea.
- Grafiko baten azalpena zuzen ulertu eta testuan falta den pasarte idaztea.

##### Zertan den

- Aldizkari batean, telebistako programa batean eta eskolako liburuetan proposatutako hainbat jolas matematiko zertan diren ulertu eta egin; antzekoak asmatu haurrei eginarazteko.
- Hainbat datu-zerrenda abiapuntu harturik taula bat osatu; grafikoa egin eta zenbait ondorio zuzenak diren ala ez eztabaidatu.
- Artikulu batek emandako datuak erabilia datu osagarriak ondorioztatu eragiketa matematikoak eginez; grafiko bat aztertu eta hainbat galderari erantzun; azalpen-txostena osatu.

#### PROZEDURA:

## 1

##### Atazaurrea (15')

- Ikasleek logika-joko bat egingo dute (VIII. eranskina), eta, gero, erantzunak alderatuko dituzte. Zalantza dutenean azal dezatela zertan egin duten huts.

##### ERANTZUNA:

| NIRE FAMILIA  | IZENA     | ADINA | LANBIDEA    |
|---------------|-----------|-------|-------------|
| AITA          | Antton    | 42    | irakaslea   |
| AMA           | Ikerne    | 40    | margolaria  |
| ARREBA/AHIZPA | Isabel    | 27    | Ikaslea     |
| IZEBA         | Mertxe    | 75    | erretiratua |
| OSABA         | Sebastian | 63    | kazetaria   |

- Ikasleek adieraziko dute ea beren seme-alabek erraz egiten dituzten modu horretako ariketak, eta, halaber, ea nola moldatzen diren seme-alabei laguntzeko. Lan horretarako, ikaslearen liburuan duten zerrenda erabiliko dute.

- Neuk egiten dut jolasa, eta azaltzen diot nola atera dudana erantzuna.
- Neuk egiten dut jolasaren erdia, eta beste erdia berari uzten diot; horrela, errazagoa da, eta, behintzat, parte bat berak asmatzen du.
- Berak egiten du, eta, gero, esaten diot zertan ez duen asmatu.
- Biok batera egiten dugu: neuk galderen bidez "pistak" ematen dizkiot; erantzuna bilatzen laguntzen diot, baina, ahal bada, ez diot ariketa neuk egiten.
- ....

### Ataza: matematika-irakasle batek proposatutako joko matematikoa ulertu eta egin (20')

- Ikasleek lehen joko matematikoa ikusiko dute (IX. eranskina / 4. bideo-pasarte), eta ikusi ahala, liburuan duten testuko hutsuneak beteko dituzte.

#### ERANTZUNA:

- Dituzun anai-arreben kopurua bider \_\_2\_\_ gehi \_1\_\_ bider \_5\_\_
- Gehi zure anai-arreben artean zenbatgarrena zaren, zuk duzun ordena  $ken\ 5 = \underline{\quad}$
- Eraitza da bi zifrako zenbaki bat. Lehenengo zifra izango da dituzun anai-arreben kopurua eta bigarren zifra zenbatgarrena zaren.

- Ikasleek beren familiari dagokion kalkulua egingo dute ea J.M Goñik esandakoa betetzen den.
- Ondoren, bigarren joko matematikoa ikusiko dute (X. eranskina / 5. bideo-jokoa), eta emandako esaldietatik zein diren egia eta zein gezurra erabaki beharko dute.

#### EGIA ALA GEZURRA?

- Logaritmoak zer diren ikasteko balio du.
- Aldagaiak edo letrak matematikan zertarako erabiltzen diren ikasteko balio du.
- Letrak matematikan ezagutzen ez duguna adierazteko erabiltzen direla erakusteko balio du.
- Ikasleek zenbat anai-arreba dituzten jakiteko balio du.

#### ERANTZUNA:

##### **Ondorengo bi gauza hauetarako balio du:**

- Aldagaiak edo letrak matematikan zertarako erabiltzen diren ikasteko.
- Letrak matematikan ezagutzen ez duguna adierazteko erabiltzen direla erakusteko.

#### Feedbacka (5)'

- Taldean arrazoitu beharko dute erantzuna. Zalantzak badituzte, bideo-pasartearen transkribapena erabili ahal izango dute.

### Ataza: matematika-joko baten instrukzioak ulertu eta ikaskideei azaldu jokoa egin dezaten (20')

- Ikaslearen liburuaren lehen eranskinean hiru joko matematikoren instrukzioak daude (XI. eranskina). Ikasleak hiruak jarriko ditugu. Bakoitzari joko baten jarraibideak emango dizkiogu; egin dezala eragiketa eta ikas ditzala instrukzioak.
- Nork bere jokoa zertan diren azalduko die besteei; entzun ahala (edota entzundakoan) ikaskideek kalkulu matematikoa egingo dute, eta, beharrezkoa bada, azalpena eman duenari laguntza eskatuko diote.

#### ERANTZUNA:

A JOKOA: Jon da zaharrena eta Maribi gazteena.

B JOKOA:  $(18 : X) + 28 = 34 / (18 : 3 = 6) / 6 + 28 = 34$ .

C JOKOA: 9 urte / 1960an.

#### Feedbacka (5)'

- Taldean, zein den buruketa hauek egiteko prozedura azalduko dute.

#### Atazaostea (15)'

- Bakoitzak horien tankerako joko bat asmatu beharko du, eta besteei azaldu, asma dezaten.

## 2

#### Atazaurrea (5)'

- Ikasleek zenbat anai-arreba diren beraiek azalduko dute eta, ondoren, zenbat seme-alaba dituzten. Familiaren tamainaren jaitsierari buruz beren iritzia emateko eskatuko diegu.

**Ataza: ikasleek dituzten datuak erabilia taula bat osatu, grafikoa egin eta horri buruz hitz egin (20')**

- Ikasleei bigarren eranskinean dituzten txarteltxoak banatuko dizkiegu, batzuei A fitxa eta besteei B fitxa (XII. eranskina). Txarteltxo horietan duten informazioa besteenarekin alderatuta (papertxoak elkarri erakutsi gabe), osa dezatela datu-taula.
- Bigarren zutabea bete (jaiotza-ordena); falta diren datuak eragiketa matematikoen bidez erabakiko dituzte.


| UDALERRIA     | JAIOTAKO UMEAK GUZTIRA | SEXUA       |              | JAIOTZA-ORDENA |           |                |
|---------------|------------------------|-------------|--------------|----------------|-----------|----------------|
|               |                        | GIZONEZKOAK | EMAKUMEZKOAK | LEHENENGOA     | BIGARRENA | 3. EDO GEHIAGO |
| Bilbo         |                        |             |              | % 57           | % 36      |                |
| Donostia      |                        |             |              |                | % 34      | % 9            |
| Agurain       |                        |             |              | % 41           |           | % 6            |
| Gordexola     |                        |             |              |                | % 62,5    | --             |
| Zeuen herria: |                        |             |              |                |           |                |

**ERANTZUNA:**

| UDALERRIA     | JAIOTAKO UMEAK GUZTIRA | SEXUA       |              | JAIOTZA-ORDENA |           |                |
|---------------|------------------------|-------------|--------------|----------------|-----------|----------------|
|               |                        | GIZONEZKOAK | EMAKUMEZKOAK | LEHENENGOA     | BIGARRENA | 3. EDO GEHIAGO |
| Bilbo         | 2.586                  | 1.337       | 1.249        | 57             | 36        | 7              |
| Donostia      | 1.504                  | 768         | 736          | 57             | 34        | 9              |
| Agurain       | 34                     | 16          | 18           | 41             | 53        | 6              |
| Gordexola     | 8                      | 1           | 7            | 37,5           | 62,5      | 0              |
| Zeuen herria: |                        |             |              |                |           |                |

- Ikasleek, nahi badute, beren herriko datuak bilatuko dituzte [www.eustat.es](http://www.eustat.es) orrialdean, eta taularen azkeneko lerroa bete dezakete.
- Taldean jarrita, grafikoa marraztuko dituzte. Hauxe da datuen taularekin aterako litzatekeen irudia.

IRUDIA:



- Grafikoan ateratzen diren irudiak kontuan hartuta, taldeka jarrita eztabaidatuko dute eman zaizkien esaldietatik zein diren egia eta zein gezurra.

ERANTZUNA:

- Hirietan, jaiotzen diren haurren erdiak, gutxi gorabehera, 1. seme-alabak dira familientzat – **Egia**
- Herri txikietan asko dira hirugarrenen umea edo gehiago izatera animatzen direnak – **Gezurra** (Gordexolan %0, Agurainen %6)
- Jaiotako guztien artean, gehiago dira lehenengo umeak bigarrenak baino – **Gezurra** (Gordexolan eta Agurainen gehiago dira bigarren seme-alabak)
- Oso gutxi dira hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familiak – **Egia**

### Feedbacka (5')

- Talde bakoitzean egindako grafikoak erakutsiko dituzte eta ateratako ondorioen berri emango diete besteei.
- Emaizetan aldeak badaude, eztabaida dezatela erabakitzeko zeinena den zuzena eta zeinena ez.

## 3

### Atazaurrea (5')

- Gainbegiratu bat emango diote irakurgaiari. Beren haurrek testua ulertzeko nolako zailtasunak izan ditzaketen azalduko dute.

### Ataza: testu bat ulertu, eta falta den pasartea idatzi, grafiko batez hitz egiteko (20')

- Hirunaka jarriko ditugu ikasleak. Ikasleetako bakoitzak aurkituko ditu eman zaizkion galderetarako erantzunak testuan (XIII. eranskina). Taldeko kideei azalduko die zein den erantzuna eta nola atera duten; horretarako, egindako eragiketa matematikoak azalduko dituzte.

ERANTZUNA:

- Zenbat haur jaio ziren 1999an?

$17.172 - 511 = 16.661$

- Jarri hurrenez hurren, kopuru handienetik txikienera, amaren adinaren arabera.

- 

- 30-34 urte  
- 35-39 urte  
- 25-29 urte  
- 20-24 urte  
- 40 urtez gora  
- 20 urtez behera

- Zenbat haur jaio ziren 2000. urtean urtarriletik irailera bitartean?

$17.172 - 4.247 = 12.925$

- Guztira 4.247 haur jaio direla kontuan hartuta, zenbat amak dituzte umeak 20-24 urterekin?

$(4.247 \times 4,8) / 100 = 203,8$      **204 amak**

- Bat al datoz lehengo grafikoari begira egia ala gezurra erantzun dituzuen adierazpenak eta artikulua dioena?

**Datu hauek orokorrak direla kontuan hartuta, artikulua honen arabera gehiago dira**  
**1. seme-alabak 2.ak baino, alde handiz, eta, nolana ere, gutxitan izaten da 3. seme-alaba edo gehiago; beraz, 2. seme-alabaren datua kenduta, datuak antzekoak dira.**

- Ezkontzaz kanpo jaiotakoen artean, nolako aldea dago herrialde batetik bestera?

**Oso berdintsuak dira datuak:  $17,7 - 16,8 = 0,9$  Araba/Gipuzkoa,  $16,8 - 16,7 = 0,1$  Gipuzkoa/Bizkaia,  $0,9 + 0,1 = 1$  Araba/Bizkaia**

- Taldetxoetan, liburuan duten grafikoa aztertuko dute ("Jaiotzen hilez hileko mugimendua EAEn. 2000. urtea") . Daturik adierazgarrienak azpimarratuko dituzte. Horretarako emandako galdez gidatuko dira. Beren azterlanaren berri emango diete beste taldeetako kideei.

ERANTZUNA:

- Orokorrean, nola banatzen dira jaiotzak urtean zehar herrialderik gehienetan?

**Berdintsu urte osoan, gorabehera handiegirik gabe.**

- Zein hilabetetan jaiotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan haurrik gehien, eta zeinetan haurrik gutxien?

**Gehiago maiatzean eta abuztuan, eta gutxiago uztailean.**

- Zein herrialdetan daude gorakada-beherakadarik nabarmenenak? Zein hilabetetan?

**Arabian gorakada handia dago maiatzean eta beherakada nabarmena, berriz, uztailean.**

- Zein da herrialderik egonkorrena, jaiotzen mugimenduaren aldetik?

**Gipuzkoa.**

- Taldeka, ' %3,1 jaiotza gehiago 2000. urtean' testua osatzeko falta den pasartea idatziko dute (XIII. eranskina).

**Feedbacka (15)'**

- Beste talde batekoekin trukatu dituzte pasarteak; pasartea beren haurrak idatzi duela pentsatuko dute, eta gurasoei gainbegiratzeko eman diela. Egin iruzkin bat, haurra gidatzeko baliagarria izan daitekeena.
- Errepara diezaiotela emandako informazioaren garrantziari, informazioaren antolaketari, ideien arteko loturari, joskerari, ortografiari...

## B. BESTERIK NAHI?

(90')

### Helburu orokorrak

- Ipuin bat eta haurrentzako liburu bat erabilia, hiru jolas hezigarri egitea.

### Helburu zehatzak

- Pertsonaiak aurkeztea gezurrak tartekatuz.
- Seme-alabek atzerriko haurren adopzioarekin zerikusia duten gaiaren gainean egin ditzaketen galderak aurreikusi eta erantzun
- Aixa-k (ipuinaren protagonistak) eta Tadese-k (Etiopiako haur batek) elkarrekin zer duten berdin eta zer desberdin zehaztea.

### Zertan den

- "Nire arreba Aixa" liburuaren egilearen eta marrazkilariaren aurkezpena egin zenbait gezur tartekatuz.
- Ipuina irakurri, eta gauza bera egingo dute protagonistaren aurkezpenarekin.
- Ipuinaren protagonista eta "Munduko haurrak" liburuan agertzen den neska alderatu. Adopzioaz haurrek egin ohi dituzten galderarik ohikoenei erantzun bat eman.

## PROZEDURA:

# 1

### Atazaurrea (5')

- Ikasleei esango diegu liburuaren azalari begiratzeko eta ipuinaren gaiari buruzko hipotesiak egiteko.

### Ataza: ipuin bat irakurri, eta bertako protagonistaren argazki iruzurtia egin (20')

- Ikasleak binaka jarriko dira. Batak, ipuinaren idazlearen aurkezpen-testua irakurriko du; besteak, marrazkilariarena (XIV. eranskina: 'Meri Torras eta Mikel Valverde'). Elkarri emango diote horien berri, baina "gezurren" bat txertatuz. Entzun ahala harrapatu egin behar dute gezurra.
- Ipuina irakurriko dute, eta gauza bera egingo dute Aixarekin, liburuko protagonistarekin (XV. eranskina: 'Nire arreba Aixa'). Ikasleek beren liburuko eranskinetan dute testua.

### Feedbacka (5)'

- Sartu dituzten gezurrei buruz hitz egin, eta adierazi zein diren iruditu zaizkien originalenak.
- Adierazi ea zer iruditzen zaien "gezurren ideia" hau, ipuinen irakurketaren aurrean interesa pizteko.

# 2

### Atazaurrea (5')

- Azal dezatela ikasleek ea ezagutzen duten atzerriko haurren bat adoptatu duen norbaiten esperientzia: ea izapidetzeak luze jo zuen, haurrak egokitzeko zailtasunik izan zuen...
- Halaber, ea ondo hartzen dituzten beste herrietako haurrak galdetuko diegu, edota ea beren seme-alabek inoiz gai horri buruzko galderaren bat egin dieten: zein diren beren zalantzak, kezak...

### Ataza: haurrek gaiari buruz egin ditzaketen galderak aurreikusi eta erantzun (20')

- Ikasleak taldeka jarri, eta laukian dituzten gai bakoitzaren inguruan Aixa-ren ipuinean aurkitzen dituzten erreferentziak jasoko dituzte.

LAUKIA:

|  |
|--|
| <b>ADOPZIOA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Nola lortu etortzea?</li><li>- Haurraren arazo fisiko eta psikologikoak</li><li>- Haur horien arazoak beren herrialdeetan</li><li>- Etxean gertatzen diren aldaketak</li></ul> |
|--|

- Talde bakoitzean ipuina irakurri ondoren, aipatu gaiari buruz hurrek egin ditzaketen galderen zerrenda idatziko dute.
- Zerrendak elkarrekin trukatu, eta nola erantzungo luketen eztabaidatuko dute taldean. Gero, emango lituzketen erantzunak talde osoari jakinaraziko dizkiote.

#### Feedbacka

- Proposatutako erantzunak entzun ahala norbaiti beste aukeraren bat bururatzen bazaio, adieraz dezala.
- Azaldu ea ipuina egokia iruditzen zaien, gai honi buruz hurrekin hitz egiteko.

### 3

#### Atazaurrea (5')

- Ikasleei eskatuko diegu irakurtzeko Tadese-k bere buruaz egiten duen aurkezpena. Hitz egin dezatela nola irudikatzen duten bere bizimodua.

#### Ataza: Tadese eta Aixa alderatu (20')

- Ikasleak taldeka jarriko dira. Tadese-ri buruzko orrialdean pasarteetako izenburuak ezabatu egin ditugu (XVI.eranskina). Proposa dezatela pasarte bakoitzeko izenburu bat.
- Talde ezberdinen proposamenak alderatu, eta jatorrizkoak zein ziren esan.

ERANTZUNA:

|  |
|--|
| 1.- Umezurtzen etxea<br>2.- Tadeseren familia<br>3.- Tadeseren saria<br>4.- Tadeseren eliza<br>5.- Umezurztegiko janaria<br>6.- Tadeseren jostailu eta jolasak<br>7.- Tadeseren laguna |
|--|

- Berrir irakurriko dute testua, eta bertan azpimarratuko dituzte Aixa-rekin Tadese-k dituen antzekotasunak.

#### Feedbacka (10')

- Elkarrizketa bideratu: Tadese beren artera ekartzeko aukera izango balute, hartuko luketen, nolako zailtasunak egon litezkeen horretarako... Eztabaida dezatela beren artean.
- Gero, galdetu ea zer iruditzen zaien seme-alabekin "hipotesi" horretaz hitz egitea. Adieraz dezatela ea, beren ustez, baliagarri izan daitekeen gurasoak eta seme-alabak aukera horri buruz pentsatzen jartzea, eta zergatik.

PUXIKA:

|   |
|---|
| HIRU JOLAS DIBERTIGARRI. HIRU JOLAS HEZIGARRI. HIRU JOLAS GOZATZEKO ETA GOGOETA EGITEKO. ETA, HORIEKIN BATERA, IDEIA BAT:<br>Iparburutik Ekuadorrera, Hego Amerikatik Asiako Ekialdera, munduko haur guztiek antzeko gauzak egiten dituzte, beldur bertsuak dituzte, eta antzera egiten dute amets<br>A ZER-NOLAKO ANTZA DUGUN DENOK! |
|---|



## 4. ERANSKINAK

### I. ERANSKINA

(1. bideo-pasartea. Entzungaia: 00.07.32)

Argazkiak ikusten

- A Nire argazkiak erakutsiko dizkizut?
- B Bai, erakutsi, ea nolako itxura zeneukan txikitan!
- A Ikusi hau, nire aitaren herrian egindako argazkia da. Nik orduan 7 urte neuzkan. Ezker-eskuinean daudenak nire aitona-amonak dira, aitaren gurasoak. Eibarren bizi dira eta biak jubilatuta daude. Orain, badakizu, denboraldi luzeak egiten dituzte kanpoan, eguzkia dagoen herrietan: Tenerifen, Benidorm-en...
- B Eta besteak?
- A Ondoan ditudanak nire neba-arrebak dira, Idoia eta Aldo. Aldo ezagutzen duzu, ikastetxera elkarrekin joaten garelako. Eta Idoia, hemen ikusten duzun ume mukizua, orain unibertsitatean dago, eta metro bat eta 85eko neska puska da. Saskibaloian jokatzen du unibertsitateko talde batean. Ia-ia ez da ohean kabitzen!
- B Atzekoak gurasoak dira, ezta?
- A Bai.
- B Beti pentsatu izan dut zure ama berezia dela, bai itxuraz eta baita izaeraz ere...
- A Bai, bada motiborik horretarako; izan ere, ez da hemen jaioa, italiarra da.
- B Bai? Ba... euskaraz oso ondo egiten du.
- A Bueno, bere gurasoak bera umea zela etorri ziren Euskal Herrira, eta badakizu, eskola, lagunak... eta aitarekin hasi zenetik, gehiago.
- B Begira, beste argazki honetan bera bakarrik dago.
- A Bai, hemen ile luzea du, baina orain motzagoa dauka. Ikusten duzu zein beltzarana den eta nolako begiak dituen? Banku batean egiten du lan.
- B Eta aitak?
- A Telekomunikazio-enpresa batean, badakizu, telefonoak eta... Ordutegi ona dauka. Goizgoizetik hasten da lanean, baina hiruretako etxean egoten da.

## II. ERANSKINA

### Munduko haurrak

Iparburutik Ekuadorrera, Hego Amerikatik Asiako hego-ekialdera, munduko haur guztiek antzeko gauzak egiten dituzte. Baloiarekin edo ezkutaketan jolasten dira, eta eskolara pozik joaten dira. Gerraren aurka daude, bakea nahi dute. Ingurumenaz kezkatuta daude, helduek kalte egiten dutela pentsatzen dute. Liburu honetan mundua bisitatuko dugu, eta txoko ugarietan jaiotako umeak ezagutu: herri txiki-txikietan eta hiri handietan, izotzetan eta tropikoetan. Eguneroko bizitzaz hitz egingo digute: beldurrak, itxaropenak eta ametsak; eta horiek ezagutzerakoan ikusiko dugu zein antz handia duten elkarren artean... baita zurekin ere.

### III. ERANSKINA

#### Haurren desirak

1.- “*Yong* hitzak “ausarta” esan nahi du eta *Koo-k* “salbatu”. Inolako krimenik ez egotea gustatuko litzaidake, eta, horregatik, handitan, abokatu edo epaile izango naiz, justizia egin dadin. Emakume atsegin eta zintzo batekin ezkontzea gustatuko litzaidake. Australiara joan nahi nuke, kanguroak eta koalak ikustera; gizonak ukitu gabeko leku asko omen dago han oraindik”

“**Ni bezalako haurrak**” (UNICEF). Bruño, 1995. 54. or.

2.- “Gerra izan ezik, beste gauza guztiak gustatzen zaizkit. Nire ustez, zorte handia dugu, bakean bizi garelako. Bi amets handi ditut: gerrak amaitzea eta diru piska bat egitea. Handitan beisboleko jokalaria izan nahi nuke edo asmatzaile, baina ingurumena kaltetuko ez duten gauzak asmatzeko”

“**Ni bezalako haurrak**” (UNICEF). Bruño, 1995. 18. Or.

3.- “Nire izenak, ‘*Jainkoaren umea*’ esan nahi du. Handitan biologiako irakasle izan nahi dut, umei ingurumenari buruzko gauzak irakatsi ahal izateko. Uste dut mundua zoragarria dela, baina jendeak natura ez zaintzeak kezkatu egiten nau. Badirudi dirua irabaztea besterik ez zaiela axola! Gogoan izan behar dugu zuhaitzak suntsitzen baditugu ezingo dugula bizi. Gerrak direla entzuteak ere triste jartzen nau; izan ere, izugarria da pertsonak elkar hiltzea. Hirietako eraikuntza gris eta ilun guztiak aldatu nahi nituzke, eta kolorez margotu.

“**Ni bezalako haurrak**” (UNICEF). Bruño, 1995. 29. or.

4.- “Handitan bulego batean lan egin nahiko nuke, dirua kontatzen. Perth bisitatzea ere gustatuko litzaidake. Nire maistra han izan zen, eta Perth-i buruzko gauza pila bat kontatu zigun. Dena den, nahiago nuke hain eraikuntza handirik ez balego, ume txikiak erortzeko arriskuan daudelako. Munduan zerbait aldatu ahal izango banu, etxe handi guztiak txiki bihurtuko nituzke”

“**Ni bezalako haurrak**” (UNICEF). Bruño, 1995. 76. or.

## IV. ERANSKINA

### Familiak

#### 1.- NOREN FAMILIA OTE DA?

Laura, ama, abokatua da, eta aita Manuel, berriz, unibertsitateko irakasle Phoenix-en (Arizona). Etxetik oso urruti dagoenez, bertan geratzen da lotan, baina ahal duen guztietan etortzen da. Birramona alboan bizi da, eta ama-semeak maiz joatren dira hara, elkarrekin bazkaltzera.

**“Ni bezalako haurrak” (UNICEF). Bruño, 1995. 18. or.**

#### 2.- NOREN FAMILIA OTE DA?

Peter, aitaordea, baserriko lanez arduratzen da, eta Evak, amak, gauza asko egiten ditu: etxea zaindu ezezik, astean behin Varsoviara joaten da osasunari buruzko informazio-zentruan lan egitera, Grazybow herrian ingelesa irakasten du, eta kirol-saioak eta ibilaldiak antolatzen laguntzen du. Hiru ahizpa ditu: Susana eta Sofia bikiek bost urte dituzte eta Joanak zazpi.

**“Ni bezalako haurrak” (UNICEF). Bruño, 1995. 29. or.**

#### 3.- NOREN FAMILIA OTE DA?

Bere amona, ama eta bost urteko Dion anaiarekin bizi da. Aita Australiako beste leku batean bizi da. Ama sukaldaria da, etxera eramateko janaria prestatzen duten denda batean. Aborigenen komunitatean helduek zaintzen dituzte ume guztiak, eta norberek balira bezalaxe tratatzen dituzte.

**“Ni bezalako haurrak” (UNICEF). Bruño, 1995. 76. or.**

#### 4.- NOREN FAMILIA OTE DA?

Bikiek “omma” deitzen diote amari, “aboji” aitari eta “halmoni” amonari. Arrebak Kang-Mi-wha du izena eta hamahiru urte ditu. Berarekin ondo konpontzen da, baina ez hain ondo anaia bikiarekin.

**“Ni bezalako haurrak” (UNICEF). Bruño, 1995. 54. or.**

## V. ERANSKINA

(2. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 00.09.13)

### Familia

- Esataria Agustín Unzurrunzaga, Iker Nabaskues eta Jose Mari Agirre. Arratsalde on.
- Partaideak Arratsalde on, berdin.
- Esataria Gure entzuleei ere esan diegu, beti bezala, gure jardunean parte hartu nahi badute, zabalik dutela gure telefonoa 943-012200. Hasteko, guztiontzat galdera bat berdina. Zer da familia?
- Partaide-1 Familia zer den? Ez da erraza definitzen, baina soziologo....
- Esataria Ez, seguruena, ez du esanahi berdina izango gu entzuten ari diren guztientzat.
- Partaide-2 Seguru, seguru ezetz.
- Esataria Ezta gure aurrekoentzat ere.
- Partaide-1 Soziologo frantses batek esaten du familia orain dela gutxi arte erakunde bat edo instituzio bat izan dela eta orain azkeneko urte hauetan biren arteko kontratu edo negozio bezala bilakatu dela, hau da instituzio izatetik edo erakunde izatetik bi pertsonen arteko kontratu pribatu bat izatera iritsi dela; horrela, labur esanda, ezta? Orduan, hori pixka bat garatuaz, ba, nik uste dut arrazoi parte handi bat daukala; hau da, familia lehenago zen unitate bat, bai ekonomikoan, noski, bai erlijiosoan, bai, ba, ez dakit kate pila bat eta lotura pila bat zuena familia osatzen zuten pertsona guztien artean, bai behetik gora, eta bai zeharka. Behetik gora esan nahi dut aitona-amona, guraso, seme-alaba eta ilobak; baita ere, eta zeharka ere bai, osaba-izebak eta, ezta? Eta, orduan, nukleoa oso, oso zabala zen eta gauza asko tradizioz jasotakoak banatzen zituena, eta gaur, berriz, ba, familia da, ba... leku askotan pertsona batek bakarrik osatzen duena edo bik edo hiruk, eta, hortik aurrera, ba, erlazioak ere aldatu egin dira, familia ja ez da hain iraunkorra...
- Esataria Lehen hiru generazio batera biltzen ziren bezala, orain bi generazio direla, bi belaunaldi direla batera teiltatu berean, teiltatupe berean bizi direnak.
- Partaide-1 Eta kasu batzuetan bi belaunaldi eta pertsona gutxikoak.
- Partaide-3 Hori da, pertsona gutxikoak, eta, gainera, gazteak nik uste dut batzuetan behartuta; ez gogoz, behartuta; hori, ba, lana dela eta gauza guzti horrek behartuta gurasoen etxebizitzan gurasoekin harreman estua mantentzen.
- Partaide-2 Dударik gabe, egoera ekonomikoak, aipatzen duzun bezala, ikaragarriko erlazio zuzena duela familiaren aldaketa edo eraldaketa prozesu horrekin, ez? Baina interesgarria da askotan egiten diren ikerketa sozial guzti hauetan agertzen dira, askotan, familia instituziorik baloratuena dela kasu askotan. Orduan, iruditzen zait nahiko kontraesankorra, zuk aipatzen zenuen eraldaketa edo aldaketa edo garatze fase hori eta, gero, orduan, galdetu beharko genieke instituziorik baloratua den gazte edo jende horiei, galdetu egin beharko genieke zer kontzeptu duten, familien zer

kontzeptu duten. Orduan, badirudi hor aldatzen ari dela, ez?; eta nik esango nuke, lehenago usten dut Txatok aipatu duela identitate-transmisioa bezala familia, familia aldatzen bada ere, identitate-transmisio bezala, ba, ez dakit, aldatzen da, ez?; elementu hori aldatzen da. Niri, ez dakit, badirudi gaur egun familia adieraztea zer den edo familiaren kontzeptu bat ematea oso zaila iruditzen zait, ez? Esaten genuena lehenago: zer gertatzen da laugarren, hirugarren eta laugarren adinako jendearekin? Ze nukleo hori apurtzen baldin bada eta borondatean oinarritzen bada familia, badirudi askatasuna dagoela zentsu positiboan bai, baina badagoela ere askatasuna, ba, zuk zure amona edo aitona 90 edo 85 urte baditu, badauzka, ba, hor konpon Maria Anton, ez? Orduan, horrek sortzen du niretzako ikaragarritzko gatazka soziala, garbi da horretarako zerbitzuak eta abar eta abar

Esataria      Familia arteko harremana esan nahi dut lehen gehiagotan elkartzen ziren aiton-amonak, seme-alabak, lehengusuak, osaba-izebak baserri batean, hogeitaz biltzea errazago zelako. Gaur egun ere etxeak txikiagoak dira, nekezago da hainbeste jende elkarrekin biltzea eta hori guztia ere, nolabait, mozten edo hozten ari da, ezta?

Partaide-1    Bai, oraindik badira familia asko eta asko, eta nik uste dut, gainera, asko baserri inguruarekin lotura duenak, segur asko, edo gehiago biltzen direnak, ba, oso normala da, nik ezagutzen dudak neurrian ari naiz hizketan, ezta? Zuk zenbait herri txikitara joaten bazara jai arratsalde batean, hango baserri-atarian ikusiko dituzu, ba, bertako seme-alabak beren senar-emazteekin, beren haurrekin, seme-alabekin eta abar, eta mordoxka handi bat bilduta, ezta? Eta hori, ohitura bezala, igandero edo astean biltzeko, eta, egia da, hori kaleko etxebizitzetan ematen zailagoa da. Horren orde, baita ere, nik uste badaudela beste eskema batzuek gutxi edo gehiago funtzionatzen dutenak, urtean behin edo bi edo hiru aldiz biltzeko, etxeak nola txikiak diren, ba, gure artean soziedade asko dago, e? Eta horrelako gauzak ere erabiltzen dira, dexente erabiltzen dira, gainera, momentu honetan bertan gogoratzen nago herri pare batean nola gertatzen den hori, eta edozein egunetan asteburutan daukazu, ba, hiru edo lau bat familia han bilduta otordu bat egiten eta mahai inguruan.

## VI. ERANSKINA

### Testigantzak (Zabalik)

#### **Arantxa Iturbe. Irrati esataria eta idazlea.**

##### **“Antsietate handiarekin bizi dut nire ama izatea”**

Arantxa Iturberen mutikoak bi urte eta erdi ditu, eta bete-bete harrapatu du gure galderak: “Gaur egungo emakume gehienok dena izan nahi dugu: profesioa oso inportantea da guretzat, bizitzeko arrazoi izatera ailegatzen baita batzuetan; seme-alaben esperientzia ere izan nahi dugu, berandu samar izan arren; beste zortzi mila gauza egin nahi ditugu... Eta egunak 24 ordu bakarrik dauzka”. Iturbek egunean 100 ordu beharko omen lituzke kazetari, idazle, ama eta lagun on izateko. Dioskunez, antsietate handiz bizi du egoera, eta artean ere ez du hartu bigarren umea izateko erabakia. “Animatzeko oso arrazoi gutxi daude...”, dio.

#### **Maite Aristegi. EHNEren idazkari nausia.**

##### **“Laguntza da senarra familiaz arduratzea”.**

Baserriko, etxeko eta sindikatuko lanak uztartzen ditu Maite Aristegik, eta beronentzat ezinbestean da garrantzitsua lanen banaketa ondo egitea. “Nirea bezalako kargua izateak disponibilitate handia eskatzen du, eta askotan korrika eta presaka ibili behar duzu, lan bat utzi eta besteari heldu... Halako desorekatxo bat eragin ohi du tarteka”. Edonola ere, senarra etxean eta umearen kargu izan ohi da, eta bada nolabaiteko abantaila: “Lagungarria da bera etxeko lanetan eta familiaren arduraren inplikazioa, baina, hala ere, prozesu bat da, eta erakutsi egin behar zaio eta egunero-egunero saiatu benetan ardurak eta lanak konpartitzen”.

#### **Esther Solabarrieta. Bizkaiko Inguru giro diputatua.**

##### **“Ni konturatzeko hazi dira umeak, azkarregi”.**

Gura-gurakoak dira Esther Solabarrietaren seme-alabak. Izan ere, Parisa beharrean, Errumaniara jo zuen mutikoaren bila, adoptatua ekartzeko, eta Mexikora neskatoaren bila. “Atzo bertan sehaskakoak ziren eta gau gizontxo eta anderetxo dira. Azkarregi ari dira hazten”. Diputazioan ematen ditu eguneko ordurik gehienak, baina, laneko kontuak bulegoan giltzapean gordeta utzi eta saiatzen da etxera iristean seme-alabekin ahalik eta denbora gehien egoten. “Zalantza mordoa sortzen zait; behar bezala jokatzeko ari ote naizen, bigunegia izaten ari ote naizen, edo gogorregia... Nik jaso nuen heziketa bera ematen saiatzen naiz”.

#### **Sofia Collantes. Kazetaria.**

##### **“Lanagatik ez diet inoiz uko egin seme-alabei”**

Familia ugaria du Sofia Collantesek, Gasteizko Onda Cero irratia zuzendariak: lau seme-alaba, 21, 19, 13 eta 9 urtekoak. Informazio Zientzietan eta Geografia eta Historian lizentziatu zen, eta beti egin izan du lan, buru-belarri. “Nik gauza bat izan dut oso garbi, seme-alabak izateari ez niola uko egingo lanagatik. Denetara iritsi nahi izan dut, eta benetan ahalegindu gara horretan bai ni bai nire senarra”. Collantesentzat guztiz asebetegarria izan da bere lan profesionala, baita seme-alabak hazi eta hezteko ere. “Ondo koordinatu gara, eta nik ahal izan ez dudanean, berak jaso ditu umeak eskola atarian; eta berak ahal izan ez duenean, nik”.

## VII. ERANSKINA

(3. bideo-pasarte. Euskadi Irratia: 00.14.51)

### Zahar-etxea

- Esataria Aipatu dugu gazteak geroz eta beranduago joaten direla etxetik, eta zahar-etxeak, berriz, geroz eta beteago. Zerrendan zain dagoen pertsona asko omen dago.
- Partaide-1 Nola?
- Esataria Zerrendetan zain dagoen pertsona asko omen dago.
- Partaide-2 Bai, bai.
- Esataria Zahar-etxeetara joan nahi edo joan behar duen pertsona heldu asko dagoela. Orduan, zer pentsatzen duzue horren inguruan, zer irtenbide bilatzen diozue horri? Zahar-etxe batean bukatuko al zenuketen zuek?
- Partaide-1 Gu nola denerako preparatuta gauden mundu honetan, ni bai, egia esango dizuet, orain nagoen bezala, ezta pentsatu ere.
- Partaide-2 Klaro hori da.
- Partaide-1 Porke orain joango baldin banaiz ni hara, interina emango nuke, porke ikusiko nuke bat ondo ez dagoela, eta beti han ibiliko nitzake harrei laguntzen, baina, bestela, hola gaizki nagoenean, gaizki eta inor ere ez gabe etxean porke ez naiz egongo, andre bat etortzen zela ordu batzutan, eta egunak dauzka 24 ordu, eta lo egiten ez baldin baduzu 48, eta atera ezazu kontua ze bakardadea eta ze tristura daukazun, nik nahiago al tropel. Nik, nik hola pentsatzen dut.
- Esataria Eta zuek Jon eta Pepita?
- Partaide-2 Ba, zer esango dizut, egoitzetan bada jendea primeran bizi dena.
- Partaide-3 Bai, denetikan.
- Partaide-2 Sasoi ederrekoak dira, sasoi ederra esan nahi dut, ba erretiratuta, baina ondo kontserbatzen direnak, eta umorea ere ona, eta...
- Esataria Zuek bezalakoak, alegia.
- Partaide-2 Eta haiek hotel txiki batean bezala egoten dira, —exatamente— neri berak kontatu zidan, eta...
- Partaide-1 Bai, egia da, ikusi egiten da eta.
- Partaide-2 Baina problema bestea da, beste alderdia dauka ordea horrek gehiena zeratzen duena,... zahartuta, fakultateak joanda daudenean, haiena ez da igoala lehen esan duguna, jakina.
- Esataria Haiena ez da mauka, ezta?
- Partaide-1 Haiena inon ez, inon ez haiena.



- Partaide-2 Ez ba. Gero, rutina bat izaten da ospitaleetan eta, beno, Ospitala deitzen diogu guk Zumaiko erresidentziari, lehen Ospitala zen eta deitzen zitzaion, eta orain ja da egoitza, zaharren egoitza, eta gaurko egunean nola dauden preparatuta ondo, oso ondo egoten dira, baina lehen esan duguna bera ondo baldin badago, ondo, baina gaizki baldin badago..., askotan ikusten dituzu han karroan jarrita puntu batera begira horrela buruari mila buelta emanez, eta nik uste dut hor egin beharko litzatekeela, ba .... Ikusi ditut nik, e, nola izaten da kina edo joku hori, izaten da, ba, zera, loteria..., bingo, bingoa, No-no-no-no; beno, bingoa deitzen zaio orain, kartulinak zeratzeko eta markatu egiteko eta... Horietakoekin ikusi ditut nik han, Zumaian herritik joaten da bat, eta bi edo hiru eta mahai handi batean jartzen dira, eta ematen zaio bakoitzari bere kartoia, eta han ibiltzen dira, behintzat, ia burua pixka bat askatu, eta burutik kendu beste pentsamendu txar horiek esango nuke nik.
- Partaide-3 Beno, harira joanda, badago, baita ere, beste motibo bat: etxean ondo baldin bazaude, ba, etxea eskertzen duzu aurrena, baina etxean sobran ikusten baldin bazara, ba, nik uste dut....
- Esataria Baina, horrela sentitzen da bat Pepita? Sobran sentitzen da bere etxean bat?
- Partaide-1 Ba, hire etxean nola sentituko haiz, ba?
- Esataria Behin adin batetara iritsita?
- Partaide-3 Ez ez, ni ez naiz ... nik ez dut pentsatzen, baina hori gertatzen zaiena badaude, umeak ezkondata joan dira, alargun dago, eta ez da ezertarako baliatzen, eta han oso ondo atendituta dago, orduan pertsona horrek asko eskertuko du residentzia edo egoitza; baita ere, emakumea baldin bada ere, nik baten batekin baino gehiagorekin hitz egin dut, hotela dela esaten dute, ez dela egoitza, hotela dela, han bere orduetan jatordu txukunak, dena eginda, eta, zu baliatzen zaren bitartean, zeure etxean ere ondo zaude, baina han ere oso ondo daudela, opinio denak daude.
- Partaide-1 Klaro.
- Esataria Hala ere, ahal duzuen bitartean Dioni zure kasuan... —Etxean, etxean— bakarrik bizi zara, baina, moldatzen zareten bitartean, norberaren etxea bezalakorik ez dago, ezta?
- Partaide-1 Hombre, han baino hobeto inon ez, baina esan dizuet lehenago esan dizuetena, eta gero norberaren karakterrak asko nahi du esan e, porke batzuk badaude ernegatuta, baina horiek ernegatuta dauden haiek kalean ere ernegatuta dabilta beti ere e... —klaro, klaro— bera bezalakoa baldin bada..
- Partaide-3 Hori jaio, jaio egiten da eta-
- Partaide-1 Hori dudarik ez egin gero batzuk ene nola, ez, ez, ez, eske horiek dira ernegatuak, "renegadas".
- Partaide-2 Haiantzako egoitza ez da batere zera e ..., haiek ezta etxean ere, haiek behin ere ez alaitasunik. Horiek, jeneralean, kexa eta kexa egoten dira. Klaro, han beti rutina bat dagoen lekuan, lehenago... —edo hau ez zaio gustatzen, zerbaiten beti kexan da, beti—, edo bestea ez du nahi, edo bestea ez dakit zer eta badakit zer, edo aldamenekoari begira. Inbidia ere bai e..., inbidia kalean ere bazion,umeak bezala, denean zion inbidia, eta han zahartu eta umetu, bai zahartu eta umetu, ume jaio eta ume bihurtu.
- Esataria Aizue, zuek botika asko hartzen duzue?

- Partaide-3 Nik bat ere ez. Orain lehen baino gutxiago, bi kilo gizendu naiz, eta bat ere ez. Lehenago lotarako hartzen nuen, eta ezta hori ere orain.
- Esataria Eta zuek?
- Partaide-1 Nik bat ere ez.
- Esataria Bat ere ez?
- Partaide-1 Bat ere ez
- Partaide-2 Beno, nik estomagorako zerbait bai.
- Partaide-1 Eta hori guztiok ere, baina, baina ondo nago.
- Esataria Hirurogeita hamar urtetik gorakoak zaretela hirurok ere, beno hirurogeita hamar – osasuntsu
- Partaide-2 Zergatik disparate batzuk igoal esango ditugu eta.
- Esataria Esan lasai asko e!, esan leike, esan.
- Partaide-2 Eta hama...
- Esataria Hamazazpi!

## VIII. ERANSKINA

Logika-jokoa

Pilik bere familiari buruzko aztarnak eskaintzen dizkizu. Datuak baliatuz, osa ezazu azpian dagoen taula.

- Nire aita ez da **Sebastian**, eta ez dago **erretiratua** (jubilatua).
- Nire izeba **Mertxe** da, baina ez da **margolaria**.
- **Kazetariak 63** urte ditu.
- Nire arreba/ahizpa **ikaslea** da, baina bere izena ez da **Ikerne**.
- **Jubilatua** dagoenak **75** urte ditu.
- **Antton** euskaltegiko **irakaslea** da, eta **42** urte ditu.
- **Mertxek** ez ditu **27** urte.
- Nire amak nire aitak baino **bi urte gutxiago** ditu.
- **Margolaria** ez da **Isabel**, baina **40** urte ditu.
- Nire izebaren senarra ez da **Antton**

| Nire familia  | IZENA | ADINA | LANBIDEA |
|---------------|-------|-------|----------|
| Aita          |       |       |          |
| Ama           |       |       |          |
| Arreba/ahizpa |       |       |          |
| Izeba         |       |       |          |
| Osaba         |       |       |          |

## IX. ERANSKINA

(4. bideo-pasartea. ETB: 00.20.00)

### 1. Joko matematikoa (a)

- Jesus M.      Eta horretarako zure kolaborazioa, zure laguntza behar dut.
- Esataria      Bai, ea bota.
- Jesus M.      Paper batean apuntatu behar duzu, nik noski ikusi gabe, zenbat anai-arreba zareten.
- Esataria      Zuk telebistara ez begiratu, zenbat, bale, bai badakit, bai eta, zein eragiketa egin behar dut?
- Jesus M.      Nik ez dut zenbaki hori ikusiko, ez.
- Esataria      Ez dizut esango ez.
- Jesus M.      Orduan, nik eskatzen dizudana da zenbaki hori bi zenbakiaz biderkatzea.
- Esataria      Bider bi, egin dut, bai.
- Jesus M.      Orain, bata gehitu.
- Esataria      Gehitu bai.
- Jesus M.      Eta orain emaitza bider bost.
- Esataria      Bider bost, egina, bai.
- Jesus M.      Eta orain zenbatu behar diozu horri zu zure anaien artean zenbatgarrena zaren.
- Esataria      Ni zenbatgarrena naizen?
- Jesus M.      Horixe.
- Esataria      Zenbatu, bai, bai, eta ?
- Jesus M.      Orduan, orain zenbakia esan behar didazu, atera zaizuna.
- Esataria      Atera zaidan zenbakia?
- Jesus M.      Horixe.
- Esataria      48.
- Jesus M.      Bueno, pues, ondo, orain zenbaki horri bost kendu.
- Esataria      Bost kendu.
- Jesus M.      Eta zer ateratzen zaizu?
- Esataria      43.

Esataria Bai, hor ikusten ari gara, etxean ikusten ari zarete.

Jesus M. Lehenengo zifra zein da? Beno, hamarreko zifra.

Esataria 4.

Jesus M. 4, eta zenbat anai-arreba zarete?

Eta bigarren zifra zein da?

Esataria 3.

Jesus M. Eta zenbatgarrena zara?

Esataria hirugarrena

Jesus M. Txalo txiki bat, ezta?

Txalo txiki bat egingo diogu.

Esataria 43, klaro!: lau anai-arreba gara eta hiru. Orduan, egin behar da anai-arreba kopurua hartu, bider bi, gehi bat hor jarri; ea ikusteko moduan garen!. Gero, horri bider bost, gero gehi hiru (hiru nire kasuan, egin dudana da ni hirugarrena naizelako anai-arrebetan)

Jesus M. Horixe.

Esataria Eta, gero, horri 5 kenduz gero, ateratzen da bi zifrako, agian 15 anai-arreba eta izanez gero....

Jesus M Bai, baina nik uste dut gaur egunean horrelako problemarik ez dagoela, lasai asko...

Esataria Beraz, 43: lau anai-arreba eta ni hirugarrena kasu honetan, eta beti funtzionatzen du horrek?

Jesus M Bai, beti, beti, beti.

## **X. ERANSKINA**

(5. bideo-pasarte. ETB: 00.22.00)

### 2. *Joko matematikoa (b)*

Ez, baina ariketa honen bidez ederki esplikatuta daitezke, esate baterako, aldagaiak edo letrak zertarako erabili matematikan. Azken batean, ba, nik ezagutzen ez dudana horri zuei aitatu dizuna, nik letra bat, izen bat jartzen dut: TX, demagun. Orduan, nik esaten dizut zuri bider bi egiteko; orduan, nik hemen apuntatzen dut 2 bider X, eta, gero, esan dizut gehi bat egiteko, nik apuntatzen dut 2 bider X gehi bat, nik esan dizut zuri bider bost egiteko, eta nik apuntatzen dut 10 X gehi 5. Gero, nik esaten dizut gehitzeko zenbatgarrena zaren, eta hori beste balio bat nik ezagutzen ez dudana, eta hori da niretzako 10 bider X gehi 5 gehi beste letra bat, eta gero esan dizut 5 kentzeko. Orduan gelditzen da 10 bider X gehi; orduan, lehenengoa bider 10 eginaz, 10eko tokira pasatzen da, eta lehenengoa gelditzen da dagoen tokian. Eta hor ikusten da algebra, eta ezezagunak, eta kontu horiek zertarako erabili daitezkeen jolasteko.

## XI. ERANSKINA

Hiru joko matematiko

### A JOKOA

Gure lagun batzuek lau seme-alaba dituzte. Jon Jone baino zaharragoa da; Maribi Marisa baino gazteagoa; Jone Marisa baino zaharragoa da. Zein da lau hauetan gazteena, eta zein zaharrena?

### B JOKOA

Senarraren adinaren erdia zati ume txikiaren adina gehi hogeita zortzi da nire adina. Senarrak 36 urte baditu eta nik 34, zenbat urte ditu ume txikiak?

### C JOKOA

Anai-arrebek euren artean 4 urteko aldea dute, eta zaharrena nik 29 urte nituela jaio zen. Nik orain 42 urte ditut. Zein urtetan jaio nintzen ni? Eta zenbat urte ditu gazteenak?

## XII. ERANSKINA

### Jaiotako haurren sexua (A-B fitxak)

#### A FITXA

- Bilbon 88 gizonetzko gehiago jaio ziren emakumezkoak baino
- Donostian guztira 736 emakumezko jaio ziren
- Gordexolan 7 aldiz gehiago jaio ziren neskak mutilak baino
- Agurainen 16 mutil jaio ziren

#### B FITXA

- Bilbon guztira 1.249 emakumezko jaio ziren
- Donostian 32 neska gutxiago jaio ziren mutilak baino
- Gordexolan 8 ume jaio ziren guztira
- Agurainen mutil kopuruaren bikoitza gehi bi dira jaiotako umeak guztira



### XIII. ERANSKINA

%3,1 jaiotza gehiago 2000. urtean

#### **Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) 4.247 haur jaio ziren 2000ko laugarren hiruhilekoan, eta guztira 17.172 jaioberri izan ziren urte horretan.**

2000ko Jaiotzen Estatistikaren behin-behineko datuen arabera, jaiotakoen kopurua 17.172koa da. EAEko biztanleek Erkidegotik kanpo izandako erditzeei buruzko informaziorik ez dugun arren, 1999an baino 511 ume gehiago jaio ziren, hau da, igoera % 3,1ekoa izan zen.

Jaiotzen Estatistikaren 2000ko laugarren hiruhileko horretako datuek erakusten dute jaiotza gehiago izan direla, 1999ko hiruhileko beraren aldean (197 jaiotako gehiago).

Aldi horretan, EAEn jaio ziren 4.247 haurretatik 1.432 urrian jaio ziren, 1.368 azaroan eta 1.447 abenduan. Herrialdeka, Araban 604 haur jaio ziren, 2.177 Bizkaian eta 1.466 Gipuzkoan.

Jaiotzen hilez hileko mugimendua kontuan hartuta, .....

.....  
.....  
.....

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, erdiak baino gehiago (% 58,2), 2.470 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.497 haur (% 35,2) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi dira, eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak 280 dira (% 6,6).

#### **Lau jaiotzatik hiru 30 urtez gorako amek eduki dituzte.**

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, argi eta garbi ikusiko dugu 30-34 urte arteko amen taldea oraindik ere nagusi dela, haiek izan baitituzte erditzeen % 47,4. Gero, 35-39 urte artekoen taldea dator (% 23,5); 25-29 bitartekoaren taldea atzean geratu da, eta % 20,4 ekarri ditu eta, azkenik, 20-24 urte artekoak ditugu, erditzeen %4,8 besterik ez baitituzte izan.

40 urtetik gora izan eta ama bilakatu direnak (% 2,8) 20 urtetik behera ama izan direnak baino gehiago dira (% 1,2).

Ezkondututako emakumeen jaioberriak guztien % 16,9 dira; beraz, 1999ko aldi berarekin alderatuz, ia bi puntu ugari dira. Herrialdeka, Araban dugu horrelakoen kopururik handiena (% 17,7), eta haren atzetik Gipuzkoan (% 16,8rekin) eta Bizkaian (% 16,7rekin).

#### XIV. ERANSKINA

Meri Torras eta Mikel Valverde

##### MERI TORRAS

Itsasotik hurbil dagoen hiri batean jaio nintzen. Etxean lorategi eder bat genuen, eta txakur bat eta zuhaitzak adarretara igotzeko... Amona ere gurekin bizi zen. Kontalari aparta zen gure amona; oso gustuko zuen itsasoari begira egotea, eta bere ipuin eta kontu zaharrek dantzan jartzen zituen inguruko guztiak. Amona historia edo kontu bat esaten hasten zitzaigunean, iraganak eta orainak, biziek eta hildakoek, ezagunek eta ezezagunek, denek bat egiten zuten bere ahotsaren dardaran. Gaur egun Literaturako irakaslea naiz Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Amona hil zitzaidan, baina nik itsasoari begiratuz jarraitzen dut, eta istorioak eta ipuinak kontatuz ere bai.

##### MIKEL VALVERDE

Hiru anaietan txikiena naiz ni. Umetan hiru anaiok komikiak irakurtzen genituen bazkaldu bitartean. Horregatik, bazkalordua noiz iritsiko amorratzen egoten nintzen ni beti. Orain ez dut irakurtzen bazkaldu bitartean, baina komikiak eta liburuak oso gogoko ditut oraindik. Batzuetan, liburu baterako marrazkiak egiten hasten naizenean, ipuin honetako protagonistari pasatzen zaion antzeko zerbait gertatzen zait: ez dakit nola hasi. Baina paperean zirriborro mordo bat egin ondoren, halako batean marrazkiak egiten hasten naiz ia konturatu gabe... Ondo baino hobeto pasatzen dut. Eta pena eta guzti ematen dit lana bukatzeak. Horixe gertatu zitzaidan liburu honetako marrazkiak egin nituenean.

## XV. ERANSKINA

### Nire arreba Aixa

Idazlan bat egiten dudanean, nik badakit hizkuntzako klasean gaudela, eta ez natur zientzietakoan. Baina atzo natur zientzietako klasea izan genuen eta ugalketari buruz hitz egin genuen. Orduan nik galdera bat egin nahi izan nuen, baina atsedenean ordua hurbil zegoen eta nahiago izan nuen ezer ez esan (bestela denak haserretu eta txurikapinto deituko baitzidaten, edo gauza okerragoak igual, baina ez ditut idatziko hiztegian aurkitzen ez ditudalako eta ez dudalako akats ortografikorik egin nahi.).

Baina gaur, idazlana egiteko gai libre dugunez, nire arrebari buruz idatzi nahi nuke. Gurasoek arrebatxo bat izango nuela esan zidatenean, poz handia hartu nuen, hala da, baina amari ez zitzaion tripa handitu edo halako ezer gertatu. Ni jaio nintzenean, ostera, bai... Tira, ni ez naiz oroitzen, baina izeba Soniak behin argazki batzuk erakutsi zizkidan eta ama tripa izugarri batekin agertzen zen, eta gero berriro normala zuen eta ni besoetan ninduen.

Izbek dioenez, erabateko potxoloa nintzen, baina ez zait iruditzen argazkian hain potolo nagoenik, eta hori baino gehiago oin biribilak dituen igel bat ematen dut.

Aixa, ostera, ez; Aixa ez zen nire amatxoren tripatik jaio: bera hegazkinez etorri zen Afrikatik. Niri ez zait batere zuzena iruditzen, ze ni handiagoa naiz eta ez naiz sekula hegazkinean ibili, eta bera bai..., nahiz eta ez dela oroitzen esan. Hori orain dela bi uda gertatu zen, baina gurasoek hitz eman didate hurrengo uztailean, oporretan, laurok hegazkinean ibiliko garela, eta Mallorca izena duen toki batera joango garela. Goizean amari galdetu diot ea bainatzerik izango dudan, eta ez kezkatzeko esan dit, uharte bat dela eta, zuzen joanez gero, edozein norabidetan joan arren, itsasoa topatuko dudala... Bai burutazio bikaina uharteak asmatu zituenarena!

Niri izugarri gustatzen zait igeri egitea, eta baita Aixari ere; baina berak ez du hainbeste aurreratzen txikitxo delako eta hanka bakar batekin oso zaila delako. Behin, igerilekuan, bere antzera igeri egiten saiatu eta hondoratu egiten nintzen... A zer ur pila irentsi nuen! Gero, tripak etengabe oso hots arraroak egiten zizkidan eta aita eta Aixa irriz karkailaka ibili ziren. Batzuetan tontakeriak egiten ditut, nahitara, barre egin dezaten, baina amak, nahiz eta barreari eutsi ezinik egon, lotsagabea naizela esaten dit eta handitan pailazoa izango naizela. Ni gustura izango nintzateke pailazo, baina sendagile ere izan nahi nuke.

Beste batean, bost txikleko pakete oso bat mastekatu nuen. Berealdiko globoa atera zitzaidan eta, lehertu zenean, ileari itsatsia geratu zitzaidan, eta kopetako ilea moztu behar izan zidaten. Ama, orduan, barreari eutsi beharrean, izugarri haserretu zen, oso serio jarri zen, ze hurrengo egunean nire lehengusina Elisabet-en jaunartzea zen. Aixak, ostera, ez zekien globoak egiten eta irakatsi egin behar izan diot, baina oraingoz txikitxoak ateratzen zaizkio eta berehala lehertzen. Kopetako ilea moztu gabe dauka.

Globoak egiten nik irabazten dut, baina punterian ez. Eskolan, patiora irteten garenean, lehiaketak antolatzen ditugu. Ez mutiletan, ez nesketan, inortxok ere ez du lortu nire arreba garaitzea. Txapeldunik txapeldunena da. Niri trikimailu batzuk azaldu dizkit: harriak ongi aukeratu edo begi bat itxi, honelaxe, edo jaurtigaiaren ibilbidea imajinatzeko besoa luzatu... Eta funtzionatzen du, ze kasik Estebani irabazi diot, eta Aixa etorri aurretik bera zen onena. Esteban minduta dago, eta galtzen duenean oihuka hasten da: "Arnau tranpatan dabil, Aixa bere arreba da!" Eta? Etxean entrenatzen garen arren, hori ez da tranpatan ibiltzea, ezta?

Atsedendian, batez ere euria ari duenean, nire arrebak goxokiak, kromoak edo gosaritarako opil puska handiak lortzen ditu (amaren urdaiazpiko egosizko edo bolako gaztazko ogitartekoak baino hobeak direnak). Aixari hankako zauria erakustearen truke ematen dizkiote. Hori egiten duenean, nik zaindu egiten dut: ez nuke nahi inork ezer eman gabe ikustea. Aixa eta biok barreka hasten gara haurren beldur eta nazka aurpegiak ikusirik. Joakin bera, errepikatzailea eta zaharragoa dena, zorabiatu egin zen Aixak bere hanka moztua erakutsi zionean. Botikina dagoen gelara eraman behar izan zuten. Orbainak ukitzerakoan, Aixak esaten die orain ez diotela minik ematen, hazkura apur bat besterik ez, eta galdera guztiei erantzuten die.

Baina egun batez, etxean, hasieran min ikaragarria izan zuela aitortu zidan eta minaz oroitzean malko gutxi batzuk agertu zitzaizkion. Ez dut beste inoiz negarrez ikusi. Nik uste horregatixe ez dela injekzioen beldur; ni, ostera, negarrez hasten naiz zitzatu behar nautenean: halakoetan nahiago izaten dut xarabe bat hartu, nahiz eta mikatzena izan. Gizakiaren aurkako minak asmatu zituenak burutazio kaxkarra izan zuen, baina baita injekzioak asmatu zituenak ere.

Joakin mutil jatorra da, baina harroxkoa eta buruiritzia ere bai. Eskolako atezainik onena dela uste du, eta egia da bere atean zaila dela zirrikitu bat topatzea, hain da altua eta gizona. Aixak gola sartu zion egun batean, eta amorrazioz negar egin zuen, lurrean txiribueltaka ibili, eta ahotik lerdea atera zitzaion. Ez zuen halakorik espero eta tristura apur bat eman zidan, baina kontuz gero nire arrebarekin: korrikan oso ona ez izan arren, a zer txuta daukan! Niri kapitaina izatea egokitzen zaidanean, Aixa aukeratzen dut aurrenekoen artean. Oso pase onak egiten dizkiot eta orduan berak, makuluekin baloia prestatu, eta zast! atera jaurtitzen du, eta bai ederki asko jaurti ere. Azkar baino azkarrago egiten du, ikaragarri trebea baita. Hori dela eta, Joakinek nire arrebaren taldean egon nahi izaten du, eta Aixak gola sartuz gero, atea utzi eta pozarren joaten da bera besarkatzera eta gola ospatzera... Esaten du piszinara bezala murgil egiten duela zelaira, baina ez da batere irristatzen, harria bezala erortzen da lurrera. Nik esango nuke aitzakia hutsa dela eta benetan nire arrebarekin gustatuta dagoelako egiten duela hori, baina Aixak ezetz esaten du, ez daudela maiteminduta, berak ongi jokatzen duelako dela eta kitto.

Egia da, bai, ongi jokatzen duela... eta argi ibiltzea daukate, ze amak sekretu bat kontatu digu. Inortxori ere ez esateko eskatu dit, baina ez dut uste irakasleei kontatzeagatik ezer gertatuko denik, ezta hemen idazten badut ere... Idazlana gai libre bati buruz eginez gero, edozertaz idatz dezaket, ezta? Tira, ba, kontua da Mallorcatik itzultzen garenean, Aixari hanka mekaniko berezi bat ipiniko diotela eta, berak hala nahi badu, ez duela sekula makuluen beharrik izango; hanka kentzen ez duen bitartean behintzat. Nik zerbaiten susmoa banuen, ze orain dela aste pare bat, etxera gizon arrotz bat etorri zen, gurasoekin ingelesez hitz egiten zuena, eta nik ezer gutxi ulertu ahal izan nion, well, girl edo thank you bezalako hitzak besterik ez. Kontua da arrebari neurriak hartu zizkiola, bai osorik duen hankarena, bai moztu behar izan ziotenarena, hau da, ezkerrekoarena.

Bi egun geroago, Aixa ospitalera joan zen eta esan zidan Kotoizko Gizona ere -ilea eta azala zuri-zuriak dituelako deitzen dio horrela- hantxe zegoela. Aixak dio gizonak bonbilla piztu baten antza zuela bere bata zuriarekin. Niri, ostera, eskola zela-eta, zoritxarrez, ez zidaten joaten utzi: ostegun arratsaldeetan gimnasia eta musika izaten dut. Gurasoek esan zidaten Kotoizko-Gizon-Bonbillaz gainera, emakumezko kazetari bat ere bazegoela han (izenaz ez naiz oroitzen, baina larunbatetako teleberriaren ostean irteten da), eta ni haserretu egin nintzen telebistan agertzea asko gustatuko zitzaidalako. Horratx nire bizitzako ametsa. Gurasoek ez arduratzeko esan zidaten, kazetaria saio berezi bat prestatzen ari zela, bai nire arrebaz bai antzeko neska-mutikoez. Mina bat lehertu zaien haurrak atera nahi omen ditu telebistan, beren herritik urrun bizi direnak, esate baterako Bartzelonan, esate baterako ni bezalako neba-arreba berriekin bizi direnak: hortaz, niri ere galderak egingo dizkidate telebistarako. Gainera, Aixak esan dit biok irtetea nahi duela, bestela ez duela hanka berria erakutsiko, eta, noski, kasu egin beharko diote, bera delako protagonista nagusietako bat.

Atzo amak liburuxka bat erakutsi zidan: Aixaren hanka berriaren argazki pilo bat ikusi nituen. Ikaragarria da. Aixak dio sekula ez duela halako hankarik ikusi. Orain daukana burdinazkoa da, eta plastikoz estalita dago, eta muturrean oin beltz bat dauka. Aixaren azala baino ilunagoa. Kolore horixe dute goiko eta beheko hortzetan itsasten zaizkizun karamelu gozo-gozo horiek, ahoa zabaltzea ere galarazten dizutenak. Kotoizko-Gizon-Bonbilla hanka horren asmatzailea da eta nik esango diot ongi begiratzeko Aixaren hankaren koloreari, ze inori ez zaio gustatzen oinak kolore desberdinekoak izatea. Ez diot esango arreba pozarren dabilela, eta bost axola diola koloreak.

Bizitzan hirugarren aldiz ikasi beharko du Aixak oinez ibiltzen, baina horrek ere bost axola berari: orain golak sartu ahal izango ditu, edo benetan bizikletan ibili, hau da, pedalei eraginez, makuluak erabili gabe eta atzetik inortxok ere bultza egiten ez diola. Nire bizikleta utziko al diodan galdetzen dit. Baietz erantzun diot. Itsulapikoa apurtuz gero, beharbada bizikleta berri bat erosteko beste diru izango dut. Urdin ilun distiratsua erosiko diot, hori baita gehien gustatzen zaion kolorea, eta kanbioduna.

Horrela zitzu batean joan ahal izango da, gero eta urrunago, igual Afrikaraino ere bai... Eta ni berarekin egongo naiz.

## XVI. ERANSKINA

Tadese

### TADESE

Tadese Asefak bederatzi urte ditu eta Addis Abeban bizi da, Etiopiako hiriburuan, Afrikako ipar-ekialdean. Aita hil egin zen, eta ama gaixorik dagoenez, ezin du familiaz arduratu. Beraz, Tadese eta lau arrebetatik hiru hiriko umezurztegi batean bizi dira. Umezurztegia Abebech Gobena izeneko emakume batek sortu zuen 1980an. Urte horretan, Abebech-ek bere etxea utzi zuen, goseak bizi ziren 21 umez arduratzeko. Gaur egun, 100 baino gehiago daude umezurztegian. Bertako eta inguruko beste 200 bat ume joaten diren eskola ere Abebech berak zuzentzen du.

1

?

Tadese umezurztegian bizi izan da bost urte zituenetik. Beste hamar mutilekin egoten da gela batean. Tadeseri asko gustatzen zaio bere ohea, honek, lanpara bat baitu irakurri eta eskolako lanak gaeuz egin ahal izateko.

Umezurztegiak janaria, arropa eta behar duten guztia eskuratzen die umeei, eta, horregatik, zoriontsu bizi dira bertan. Batzuek ama deitzen diete zaintzen dituzten emakumeei.

2

?

Tadesek lau arreba ditu. Zaharrenak, 18 urtekoak, lurra lantzen du. Beste hirurak, Azeb, Worknes eta Zenas umezurztegian bizi dira. Tadesek beti esaten du berarentzat munduko pertsonarik garrantzitsuena Abebech Gobena dela eta anaiarik ez duen arren, umezurztegiko beste mutil guztiak anaiatzat hartzen dituela.

3

?

Duela gutxi Tadesek diploma hau jaso zuen eskolan. Tadesek ikasten dituen gaiak ondorengo hauek dira: matematika, amhariera (Etiopiako hizkuntza nagusia), ingelesa, natur zientziak, gizarte zientziak eta musika. Kirola ere egiten dute eskolan. Tadesek gogoko du ikastea. Bere ustez, kontuak egiten ez dakienari iruzur egin diezaioke dendariek. Ingelesa ikastea ere interesgarria iruditzen zaio, etorkizunean lagungarri izango dela uste baitu.

4

?

Tadese kristaua da, eta igandetan eliza honetara joaten da. Gauero otoitz egiten duenean, Jainkoari eskatzen dio umezurztegia leku baketsua izan dadila. Tadesek uste du denboraren amaieran hildako guztiak piztu egingo direla eta Jainkoak erabakiko duela nor izan den zintzoa eta nor gaiztoa. Zintzoak zerura joango dira, eta gaiztoak infernura.

5

?

Abebech Gobena etxalde bat du Addis Abebatik hurbil. Umezurztegian jaten diren produktu gehienak handik ateratzen dira. Elikagaiak prozesatzeko gela berezi bat dago, eta bertan egiten dute irina. Janariak egunero aldatzen dira, eta Tadeseri denak gustatzen zaizkio. Ostegunetan, *shorba* jaten dute, patata, ilar eta lentejekin egindako zopa.

6

?

Umezurztegiko langileek umeen oheak egiten dituztenean, jostailu politikak uzten dituzte ohe gainean. Artilez egindako hartz hau Tadeseren maskota da. Lagunekin futbolean jolastea eta telebistan filmak eta musika-programak ikustea maite du. Tadeseri pop musika gustatzen zaio, eta oso gogoko du Etiopiari buruzko ipuinak eta liburuak irakurtzea.

7

?

Hona hemen Tadesere eta honen lagunik onena, Adisu. Adisu Tadesere baino hiru urte zaharragoa da, eta honek eskolako lanak egiten ez dakienean, Adisuk laguntzen dio.